

EUSKARALDIA

EUSKARAK
365
EGUN

Mihia
euskaraz
dantzan

/2-3

Premia dutenendako elikagai bilketa egingen du Nafarroako Jaki Bankuak gaur eta bihar / 9

Aralarko santutegiko arkeologia-indusketak 2018an argitzeko hainbat galdera utzi dituzte / 10-11

Zure egia gure egiten, sinesten dizut. Mezu hori zabaldu zen azaroaren 25eko kontzentrazioan / 3

Irurtzango Euskal Ekitaldiak igandean hasiko dira Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin / 6

Sakanako Pilota Txapelketa eta Emakumezkoen Pala Txapelketa hastear dira / 17

HAU EZ DA ZABORRA,
ONGARRIA BAIZIK



**Eman izena Altsasuko
5. edukiontzian:
900 730 450
Hasiera data:
Urtarrilak 15**



Sakanako euskalgintzako kideek Kontseiluak antolatutako mobilizazio bati babesa azaldu ziotenekoa. ARTXIBOA

Euskaraldia, mihia euskaraz aktibatzeke

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egunez euskaraz hitz egiteko erronka zabaldu dute. Euskal Herriko hiru administrazioek eta euskalgintzako 26 eragilek antolatu dute Euskaraldia, euskararen erabilera handitu asmoz

SAKANA

Heldu den urteko kanpaina bat azalduko dizugu hurrengo le-
rroetan, irakurle. Euskaraldia du izena eta epe luzeko Euskarak 365 egun leloko kanpainaren barruan kokatzen da. Jakina denez, kanpaina horren helburua hizkuntza ohiturak aldatzea da. Euskaraz bizitzeko pertsonen pausoak eta mota guztietako

entitateen babes neurriak bulkatu nahi dira. Euskaraldia, 11 egun euskaraz ekimenaren bidez Euskal Herri guztiko euskaltzaleak aktibatu nahi dira eguneroan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten. Erronka luzatu digute 16 urtetik gorakoei: heldu den urteko azaroaren 23tik abenduaren 3ra ahal den guztietan euskaraz hitz egitea.

Ekimena administrazioen eta euskalgintzako entitateen elkarlanaren fruitua da. Koordinazio lanean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Euskarabidea eta Euskaltzaleen Topagunea ari dira. Azken hori, gainera, ekimenaz batzordearen koordinazioaz eta ekimenaren kudeaketaz arduratzen da. Hurrengo urtean zehar

herrietan 11 egun euskaraz ekimena aurrera egiteko batzordeak sortuko direla aurreikusten da. Baina antolaketa ikastetxe, enpresa, koadrila, denda edo dena delakoan egin daiteke.

Aurrekariak

Euskahaldun leloa izan zuen 2015eko Korrikak. Lutxo Egiak Bilbon hilabetez euskaraz bizitzeko performancea egin zuen ondoren. Bi horiek gogoan, Donostiako Egiak auzoan erronkari heldu zioten: astebeteko txandetan euskaraz ahalik eta gehien hitz eginen zuten 200 pertsona aktibatu zituzten. Atzetik etorri dira Lasarte-Oria, Agurain, Lizarra eta beste herri batzuetako esperientziak. Euskararen erabilera gora egin zuen eta hizkuntza erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak sortu ziren.

Orain arte pilotutako eskarmentuan oinarrituta 11 egun euskaraz ekimeneko dinamika bi pertsona multzotan oinarrituko da. Alde batetik, **Ahobiziak** izanen ditugu, ardura hau izanen duena: “ulertzen duenari euskaraz eginen diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz eginen diet”. Bestetik, **Belarriprest** izena dutenak daude, konpromiso hau hartuko dutenak: “egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzunen dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut”. Eta horrela, 11 egun. Hala ere, 2018ra itxaron gabe gaur bertatik praktikatu dezakezu.

Sakanan, egitasmoaz

11 egun euskaraz ekimenaren iritzi bila Sakanako euskalgintzako eragileengana jo dugu. Sakanako Mankomunitateko Euskara Batzordeko buru da

Felix Altzelai. Berak azaldu digunez, “azken urte hauetako ikerketen emaitzek alarma gorria piztu zuten. Badirudi, azkenean, joera iraultzearen beharraz jabetu garela eta denok bat gatzela horretarako, orain arte eginikoaz aparte, beste zerbait egin behar dugula”. Altzeilarendako “inportantea da euskalgintza instituzionalak eta herri mugimendukoak norabide berean arraun egitea, helburuz, ekintzez eta baliabidez”.

Sakanako AEKko arduraduna da Patxi Flores, Euskaraldia sustatzen duen erakundeetako bateko kidea. Ekimena “intergarriztat” jo du. Lasarte-Oriako esperientzia eta gero, erabilera hurrengo bizpahiru asteetan “izugarri igo zen, nahiz eta gero berriz jaitsi”. AEKren helburua gogora ekarri digu Floresek: “jendeak euskara ikastea erabiltzeko eta erabiltzea azkarrago ikasteko”. Ekimenari ere bertutea ikusten dio helduendako euskara irakasleak: “ulertzen duenari ere aukera ematen dio euskararen munduan sartzeko eta euskal hiztunari esaten dio jende-multzo handia dagoe-la, ez hitz eginagatik, ulertzen duena”. Floresendako “momentu ona” izan daiteke “elkarrizketa mota horri heltzeko, euskaldunak euskaraz ari zeko eta gainerakoek, gaitasunaren arabera, euskaraz lasai entzuteko eta ahal dutenean euskaraz ari zeko eta bestela erdaraz erantzuteko”. Nabarmendu duenez,

AHOBIZIAK BETI EUSKARAZ ARIKO DIRA. ULERTZEN DUTENAK BELARRIPREST DIRA

Ostiraleroko SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Ostiraleko gaiak:

- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna
- Altsasuko gazteak urte bat espetxean
- Iñaki Berastegirekin Harmaila aldizkariak

“guri arrarora egin arren katalanendako ohikoa da eta ongi doakie, gainera”.

Hizkuntza Eskubideen Behatokia da ekimena sustatu duen beste erakundeetako bat eta han dabil lanean Garbiñe Petriati. Orain arte egin diren esperientziel erreparatu die Behatokiko kideak: “esperientzia horiek erakutsi dute hurbiletik, inguruengandik hasita, era gozo eta atseginean, euskarara hurbildu eta hizkuntza ohituretan eragiteko eta euskaraz bizitzeko xedean bidea egiteko lagungarriak direla”. Petriatiren iritziz, “esperientzia horiek utzi duten arrastoari segituz egitasmoa modu orokorrean martxan jarzteak ahalduz ariketa egiteko aukera eskainiko du”. Horregatik, “positibo” iruditzen zaio ekimena, “jendearen gogo delako euskararen egoera hobetzeko bidean hanka garrantzitsu bat”.

Sustatzaileen artean ere Ikastolen Elkarte dago. Andra Mari ikastolako pedagogia zuzendari Iñaki Tolosak azaldu digunez, “ikastolok ikasketak euskaraz egiteko ez-ezik, euskara kalera eramateko lanean jarraitzen dugu hainbat ekimenen bidez”. Egunerokoan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak babesten dituztela gogorarazi ondoren, Euskaraldiaz esan digu: “proposamen oso zehatzak dira, gizartearen gehiengo handi batek aurrera eraman ditzakeenak”.

Aizpea, Irurtzungo Euskaltzaileen Topaguneko kidea da Ana Balda. Aurreko esperientzien berri badu eta badaki “erantzun ona” izan dutela. “Idea ona iruditzen zaigu beste leku batzuetara zabaltzea”. Sakanako Mintzakide programako arduraduna da Edurne Ruiz. Harendako ekimenaren helburua “inertziak apurtzea eta erabilera bultzatzea” da. “Erronken bidez lortu nahi da eta posible dela iruditzen zait! Gainera dibertigarria izan daitekeela pentsatzen dut”. Orain arte halakorik “modu orokor eta masiboan ez dela egin” nabarmendu du.

Erabilera eragin

Guztiek ekimenak Sakanako euskararen erabilera eragiteko baliagarria ote den galdetu diegu. Altxelaik aurrekoak “oso esperientzia positiboak” izan direla gogorarazi du. “Euskararen erabilera aktibatzea eta



Korrikak euskaltzaleak biltzen ditu.

hizkuntza ohiturak aldatzera eraman nahi gaitu, euskaldunok, euskaldun hartzaileak eta euskara jakin ez baina aldeko jarrerak dutenak inplikatur”. Mank-eko Euskara Batzordeko buruarendako “indarrak batuz eta denok batera bulkatuz lortuko dugulakoan nago”. Baina azpimarratu du: “norberarengandik hasi behar dugu ohiturak aldatzen, baina hizkuntza ohiturak euskararen alde aldatuz joateko hizkuntza komunitate osoan eragin behar dugu.

AEKko Floresendako heldu den urteko ekimena “saiakera ona izan daiteke ohitura berriei eusteko eta erabilera zabaltzeko”. Petriatik garbi du euskararen erabilera handitzeko baliagarria izan dela. Hizkuntza gehiago ez hitz erabiltzeko dauden muga edo oztupoak nabarmendu ditu Behatokikoak: “euskarak aritzeko norberarenak izaten dira mugak batzuetan (segurtasunik ez, lotsa, beldurra.); inguruan aurkitzen dira oztupoak beste batzuetan (administrazioetan, familian, herriko dendetan, zerbitzuak kontratatzeke unean, lagunartean...)”. Horregatik, Petriatik dio, “arrazoi bat edo beste izan, Sakanako errealitatera egokitu, sakandarraren eta eragileen arteko sareak sortu, elkarrekin inertziak apurtu eta joerak berriak sortzeko aukera eskainiko du ibarreko herrietan”. Tolosaren ustez 11 egun euskaraz ekimena “berezikiki Sakanan oso eraginkorra izan daiteke. Izan ere, ahobizi eta belarriprest profila betetzen duten herritarren portzentajea

handia dugu. Horregatik, ekimen hau bultzatzeko aukera ez genuke galdu behar”.

Baldaren iritziz, “beste leku batzuetan baliagarria izan bada, hemen ere izan daiteke. Gainera, askotan umeek erabil dezaten ahalegintzen gara, eta honek gazte eta helduak ditu helburu”. Ruizek garbi du “erabilera bultzatzeko inertziak apurtzen ez badira, erabilera ez doa aurrera”. Ekimenari “kontzientziatzeko” gaitasuna aitortu dio. “Modu praktikoa, gure ohitura batzuk apurtuko ditugu 11 egunez. Erabilera igotzen hasteko lehenengo pausua da”.

Parte hartzea

AEKko eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiko kideek ekimenaren sustatzaile diren heinean, parte hartuko dute. Altxelaik esan digunez, “Sakanako Mankomunitateak urteak daramatza norabide horretan lan egiten. Egitasmo honek aukera emanen digu traineru batera igotzeko non arraunlari guztiok batera egingen dugun arraun, eta ez dugu aukera pasatzen utziko”. Mank-eko ordezkarriak, gainera, aurrerapen bat egin digu: “badirudi, gainera, nahiz eta lehenbiziko “erakustaldia” heldu den urteko udazkenean egitekoa den, egitasmoa luzerako planteatu dela; hortaz, ikusiko dugu zer ematen duen eta nolako inplikazioa eskatzen duen”.

Mintzakideko Ruizendako “asko falta” bada ere, “oso interesgarria izan daiteke euskara ikasten ari diren ikasle zein Mintzakideendako. Egoera artifizialean jartzen ditugu batzuetan ikasleak eta talde euskaldunak sortu behar ditugu (Mintzakide taldeak) euskalduntzen ari direnak praktikatu ahal izateko”. Euskaltegiatiko ikasleak eta Mintzakideek “euskara modu askean praktikatzeko behar dute”, horregatik ekimenean parte hartuko dutela jakinarazi du. Tolosak esan digu ekimenari “merezki duen oihartzuna eta bultzada” emanen diotela euren hezkuntza komunitatean. Irurtzungo Euskaltzaileen Topaguneko kide Baldari “beste talde batzuekin batera egitea garrantzitsua” iruditzen zaio, esaterako, Pikuxar euskal txokoarekin. Oraindik ez dute ezer erabakita, baina “koordinazioak denbora” eskatzen duela ere nabarmendu du.



Ikasleek emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako ekitaldian parte hartu zuten.

Eraso matxisten biktimea diren emakumeak erdigunean jarrita

Sinesten dietela adierazi zuen mugimendu feministak emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunean

ALTSASU

Irurtzunen, Uharteko Arakilen, Arbizun eta Altxasun izan ziren ekitaldiak azaroaren 25ean, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunean. Altxasuko mugimendu feministak kontzentrazioaren ondoren Sinesten dizut zioen manifestua irakurri zuten. Gogorazi zuten espainiar estatuan urtero milaka emakume bortxatzen dituztela. “Horregatik borrokatzen gara feministok, gaitz hori ezabatzeko. Egutero aldarrikatu behar dugu, eta arlo guztietan konpromisoak hartu. Erakundeek kasuan ez bezala, gure eskaerak ez dira festen aurreko kanpainetara eta egun jakinetara mugatzen”.

Eraso matxisten biktimei sinesten dietela berretsi zuten, “eta horregatik, ez dugu onartuko tratu iraingarriak, aurreiritzirik edota balio-iritzirik, edozein tokitatik datozela ere. Ez eta komunikabideetatik datozenak ere. Beharrezkoa ote da erasotzaileari aurre egitea eraso matxistak gertatzen direnean?” Salatzen duten emakumeek “ez isiltzeagatik eta eraso sexistak agerian uzten laguntzeagatik umiliazio bikoitza jasaten” dutela nabarmendu zuten; “isil-isilik nahi gaituzte, baina ez dute lortuko”.

Sinesten diete

Altxasuko mugimendu feministako kideek nabarmendu zuten, “eraso matxistek eragina dute osasunean, lanean, gizarte-harremanetan eta emakumeen

bizi-proiektu osoan. Ziur gaude erasotzaileak epaitu beharrean, emakumearen zintotasuna epaitzen dutela beti”. Horrek, “amorratioa eta ezintasuna” sentiarazten ziela azpimarratu zuten, “emakumea kritikatu eta erasotzailearen alde egiten delako beti. Eta, gainera, ez da prebentzio-neurririk hartzen eraso eta bortxaketa matxistarik berriro gerta ez dadin”.

Adierazi zuten, “eraso matxista guztien oinarrian gizonen nagusitasuna eta inpunitea daude” eta sanferminetako taldekako bortxaketa eredu gisa jarri zuten. Erasoen biktimei sinesten dietela nabarmendu zuten: “guk zure lekukotasuna baino ez dugu behar. Badakigu arma guztiak erabiltzen dituztela zure askatasuna ezeztatu eta zure gorputza makurrarazteko. Finean, emakume guztion gorputzak mendean hartu eta askatasuna deuseztatzeke”.

Ikasleak

DBHko eta Lanbide Heziketako eta Lanbide Heziketako institutuko ikasleak Altxasuko Udalak antolatutako tailerretan parte hartu dute. Pasa den astean despiditu zituzten saioak. Asteartean eta asteazkenean Iortia kultur gunetik pasa dira Tdiferentzia antzerki taldearen *Bi ero diskotekan* antzezlan ikustera. Tailerretan sortutako mezuekin emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako irudia den eskua osatu dute Iortia kultur gunean.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Eman bizia euskarari!

Oso samurra izaten da hiruzpalau urteko haurrak jolasten ikustea, baina are xarmentagoa haur horiek euskaraz goxo hitz egiten entzutea. Gaur, sentsazio hori bizi izan dut hiru haurtxo hizketan lasai sumatu ditudanean: —lotan dago / —ez, ez dago lotan / —be-gira, pozik dago. Zomorro bat zuten esku artean, auskalo nola bukatu zuen!

‘Euskara galtzeko arriskua’ hainbestetan entzun dudanez, gaiak arduratzen nau. Betidanik, harritu nau hainbat pertsona txit gorenek euskararen etorkizunari buruz epai ezkorra egin izanak. Horieta bat Miguel Unamuno izan zen, Salamancako unibertsitateko irakasle bilbotar ospetsua. Harribitxi ederrak utzi zituen “euskararen heriotza minez eta etsipenez onartu behar da, bere bidez ezin baitira ideia abstraktuak adierazi” edo “euskaldunek hizkuntza eta ohiturak alboratu behar dituzte modernitate espainiarrean sartu ahal izateko”.

Nonbait, arrangura bizi zuen bihotzean. Izan ere, 1888. urtean Bizkaiko Foru Diputazioak euskararen katedra sortzeko deialdia eginda, hiru hautagai aurkeztu omen ziren: Sabino Arana, Resurrección María de Azkue (geroago, Euskaltzaindiko burua) eta Miguel de Unamuno. Bada, katedra Azkue irabazi zuen. Harrez geroztik, Unamunok ez zuen euskararekiko hitz goxorik izan.

Bistan denez, Unamunok igarpen okerra egin zuen. Geroztik, 200 urte ongi pasatuak direnean, etzidamu Euskararen Eguna ospatuko dugu, eta 6tik 10era Durangoko azoka izanen da. Hortaz, heriotza epairik ez, eta eman bizia euskarari!

GUTUNA

GURUTZ MAIZA ARTOLA

Kaixo herrikideok!

Dakizuen bezala, hil honetan Ipar Euskal Herriko eragileek elkartasun bira antolatu dute Frantziar estatuko kartzeletan, datorren abenduaren 9an Parisen izango den manifestazio nazionalari begira motorrak berotzen hasteko. Mobilizazio hauek ongi ezagutzen duzuen testuinguruan gertatzen ari dira: joan den apirilean ETAK gizarte zibilaren esku utzi zituen bere armategiak, IEHko eragile ezberdinen arteko sinergiak are gehiago bizkortuz, eta Frantziar gobernuarekin lotura zuzenak ahalbidetuz. Aldi berean, Kolektiboak bere barne eztabaida amaitu du, eta jakina denez, ETA erakundea berea burutzen ari da.

Guztiok jabetzen gara urrats guzti hauen garrantziaz, baita urratsok laguntzeko herri mobilizazioaren

ezinbestekotasunaz ere. Ez dago herri gisako urratsik egiterik, jendartearen babes eta inplikaziorik gabe. Eta, guk bezain ongi dakizue, inork gure kioletako ateak irekiko baditu, hori gure Herria izango da. Horregatik, Pariseko manifiante parte hartzeraz dei egin nahi dizuegu.

Kartzela guztiak dira kartzela, kartzela guztiak suposatzen dute gatibu egotea, lotuta, bortxatuta, herritik, familiarengandik eta lagunengandik urrunduta; baina, guztiarekin, kartzela honetan bizi-baldintza “zuzenak” ditugu: aurrez-aurreko bisita luzeak, are, hilean behin, familia edota lagunekin lo egiteko aukera. Kartzela lasaia da, kartzelariak ez gaituzte jazartzen, preso sozialek begirunez tratatzen gaituzte, modulo batean elkarrekin gaude (bi estaitan), aldiro

elkarrekin bazkaltzeko aukera daukagu, besteak beste patioan landatzen ditugu tomateak, kalabazak, piperrak eta abar luze bat. Euskal Preso Politikoen Kolektiboan ez dira gutxi gu baino egoera zailagoan giltzapetuta dauden kideak.

Guzti honek, noski, ez du arintzen etxera itzultzeko premia. Ezta, etxerako bidean, Euskal Herrira gerturatzea ere. Hartara, hil honetan bertan, guztiok eskatu dugu ofizialki Euskal herrira gerturatuak izatea, Lannemezango espetxera batzuk, Mont de Marsanekora besteak. Eta esan gabe doa, datorren abenduaren 9an zuekin izango gara Parisen, fisikoki ez bada gogoz behintzat.

Askatasunerako bidean atzera urratsik ez! Amnistia eta Autodeterminazioa! Gora Euskal Herria Askatuta! Besarkada bat guztioi.

HARA ZER DIEN

Protagonismoa

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Badirudi adineko giza-emakumeak protagonismoa hartzen ari garela gizartean eta, batez ere, politikoen agendan. Azkenaldi honetan, hedabideetan sarritan ateratzen dira adinekoen arazo, behar eta hainbat proposamen. Eta badira prentsan agertzen ez direnak, baina adinekoen munduan murgilduta

gabiltzanok badugu saialdi horien berri: ordezkartza, kudeaketa antolamendua...

Gurera etorrita, Nafarroan Gobernuak urte honetan hausnarketa prozesua antolatu du adinekoen partaidetza eta elkartzeari buruz. Instituzioek horrelako gauzak antolatzen dituztenean, badakigu oso maila onekoak izaten direla, baina emaitzari begiratzen badiogu, murrizta gelditu dela esan behar. Helburu nagusia

adinekoen kontseiluari protagonismo handiagoa ematea izan da, baina, dirudienez, ez da aldaketa nabarmen bat egiteko asmorik, eragin gutxiko ordezkartza izango da jubilatuen. Guk, gure jubilatuz guztien artean aukeratutako ordezkariak nahi ditugu, gure eskubideak instituzioetan aldarrikatu eta babesteko.

Etxera etorrita, jubilatuei buruz Sakanan egiten ari den

lana aipatu behar dugu. Ez da gaurko berria, uste dut “GUAIXE” astekari batean aurkeztu zela proiektua. Asko zehaztu gabeko asmoak ziren; gaur, esan dezakegu gauzatzen ari dela eta Sakanako jubilatuz askok izan dute, inkesta baten bidez, parte-hartzeko aukera. Azterketa soziologiko baten bidez, Sakanako jubilatuz enrealitatea, egoera, ezagutu nahi da eta enrealitate honen arabera, baliabideak eta aukerak aztertu,

jubilatuentzat bizi duin bat bermatzeko. Behar-beharrezkoa ikusten dugu jubilatuz guztien partaidetza.

Guk gure protagonismoa aldarrikatu behar dugu, protagonismo eraginkorra: gure bizia, gure eskubideak, gure duintasuna, gure etorkizuna, gure errespetua berma dezakeen gizartea eraiki nahi dugu, ez izerdia xurgatu ondoren, baztertzan gaituen gizartea.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
Zuzentzailea:
Patxi Flores

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Establezimenduen eta zerbitzuen gida, etxean

Sakanako Gida etxez etxe 8.500 etxebizitzetan banatzen hasi berri dira. Paperezko bertsioak eta Internetekoak, www.guaixe.eus/gida Sakanan dagoen zerbitzu eta establezimendu eskaintza zabalaren berri ematen du

SAKANA

Etxean matxura izan duzula eta elektrikari bat behar duzula. Edo informatikari bat. Denda-koari telefonoz galdera egin nahi diozula. Edo beste establezimenduen helbide fisikoa edo sarekoa zein den jakin nahi duzula. Horiek dira Sakanako Gidaren egitekoa: informazio praktikoa ematea, egunerokoan baliagarria dena. Baina, irakurle, zuk etxean jaso ondoren bakarren bat gehiago emanen diozu, ziurrenik.

Guaixe fundazioaren argitalpena da Sakanako Gida, ibarreko dendan, zerbitzuen, enpresen eta autonomoen informazio osatua eta eguneratua duena. Gida berak Sakanan dugun eskaintza zabalaren eta ugariaren berri ematen du ere. Bertako ekonomia-oren oinarri zabala osatzen duten Sakanako Gidan agertzen diren zerbitzu eta establezimenduak. Haiek bizi diren heinean gure herriek bizia izanen dute eta sakandarrek ez dute lanera kanpora alde egin beharrik izanen.

Sakanako Gida etxera iritsiko zaigu hurrengo egunetan. Baina uneoro eskuragarri izan dezakezu Interneten, www.guaixe.eus/gida helbidean. Bietan bilaketa errazteko gida sailka eta



Sakanako buzoi guztietara iritsiko da gidaren ale bana.

azpisailka antolatuta dago. Interneten, gainera, establezimendu bakoitzak bere orria du eta han helbidea, telefonoa, e-posta eta haren web orriaren berri dago. Mapa batean haren kokapenaren berri ematen da ere.

Sakanako Gida komertziala ez da Guaixe fundazioak Sakanan bizi eta lan leloa gauzatzeko aurrera daraman egitasmo bakarra. Bere hedabideen bidez ibarreko zerbitzu eta establezimenduei Sakanarako eta mundurako erakusleio bat eskaintzen die. Gainera, 2012az geroz-

tik BelexeGuaixe txartela indarrean du. Horrek fundazioaren babesle diren 1.500 sakandarrei ibarreko 90 bat establezimenduetan abantailak eskaintzen dizkie.

Harremanetarako

Sakanako Gidaren hurrengo urteko edizioan, bosgarrenean, edo orain Interneteko bertsioan sartu nahi dutenek 948 564 275 telefonora hots egin edo publi@guaixe.eus edo publizitatea@guaixe.eus e-posta helbideetara idatz dezakete.



Ablitasen bete ziren Errigorako kutxak, auzolanean. UTZITAKOA

Errigorako 261 saski Sakanara etorri dira

Erriberako euskalgintza eta ekoizleak laguntzeko 97 Errigora zuri eta 164 Errigora Beltz eskatu ditugu

SAKANA

Errigora kanpaina despeditu berri da eta Erriberako produktu gozoz betetako saskiak jasotzen ari dira eskaria egin dutenak. "Berriro ere egin dugu eta bosgarrenez. Kanpaina ederra burutu dugu eta emaitzak ere bikainak dira. Iazkoari eutsi eta 14.000 saski gehiago prestatu ditugu, herri lanean aurrera egiteko. 175.000 euro gehiago lortu ditugu, euskaratik, euskaraz eta euskararendako. Herri-rik eta herrirako" adierazi dute Errigorako arduradunek. Erriberako produktoreen produktuez betetzen dira saskiak, eta saskiak betetzeko eta bidaltzeko lanak auzolanez egin eta gero, zenbateko hori Erriberan lan egiten duen euskalgintzak jasotzen du.

Zubigintza leloa hartu du aurtengo Errigora kanpainak. Errigora ekimenean hainbat helburuk bat egiten dute: Nafarroa

hegoaldean euskarak tresna estrategiko berriak gauzatzeko; merkaturatze bide berriak gauzatzeko; ekoizpen-ekoizle berriak finkatzeko; lurralde eta eremuen arteko harremanak trinkotzeko... Horretarako, zubigintza ere baden herri-lanari, auzolanari ekitera deitu dute Errigoratik. Udazkenean egiten duten Euskarari puzka kanpainarako 25 ekoizle batu zaizkie. Haien produktuekin bete dituzte saski beltzak (Errigorako kutxa klasikoa) eta txuriak (berrikuntzak dituenak). Sakanan 261 saski eskatu dira guztira, 97 saski zuri eta 164 saski beltz.

Kanpaina honen ondoren, Errigorako udaberriean bueltan etorriko dira. Orduan Eskutik Eskura kanpainarekin. Erriberako ekoizleetatik sukaldeetara produktuak eramanez. Hain zuzen saskietan daudenetako batzuk eskuratu ahalko dira.

Urbasa-Andiarendako ekologia-ziurtagiria, bidean

Ekologikoan ari diren abeltzainek mendiko larreak arazorik gabe erabiliko dituzte, besteek ere

SAKANA

Nafarroako Gobernuak Ingurumen eta Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak eskaera zehatzarekin jo zuen Nafarroako Nekazaritzako Produktzio Ekologikoaren Kontseilura (NNPEK)

2016ko akaberan: erabilera publikoko Urbasa-Andia mendiak Nafarroako Nekazaritzako Ekologikoaren Ekoizpen Ziurtagiria emateko. Martxoan bi erakundeek egindako bileran ideien balorazio positiboa egin zen.

Urbasa-Andiari ziurtagiri hori emateak kreditatuko du bere larreak Europako Batasunaren eta NNPEK-en ildoei segituz kudeatzen direla. Kontseilua bera izanen da jarraipena eta kontrola egiten duena. Horrela, ekoizpen ekologikoa egiten duten abeltzainek mendiko larreak arazorik gabe erabiltzeko aukera izanen dute, ohiko ekoizpena egiten duten abeltzainendako mugarik ekarri gabe. Nafarroako Gobernuak neurri horrekin "ekoizpen ekologikoa-



Behorrak Urbasan.

ren ildoei jarraituz, produktu bereiztua eta kalitatezkoa lortzeko erraztasunak" ematen ditu.

15.637 hektarea

Azalera hori du Urbasa-Andiak. Urtero, gutxi gorabehera, 27.000 ardi (17.000 latxa eta 10.000 rasa), 4.300 behi eta 3.300 behor larratzen dira mendian. 390 ustiatetik azientza da. Mendian apirilaren 15etik abenduaren 15era arte egoten dira.

Euskal Ekitaldiak ate joka daude Irurtzunen

Euskararen erabilerari bultzada emateko adin guztiendako egitaraua prestatu dute

IRURTZUN

Aizpea, Irurtzungo euskaltzaleen topaguneak antolatu ditu. Haren helburua da irurtzundarrak abenduko oporregatik herrian daudela baliatuz, Irurtzunen euskara bulkatzeko eta ikustarazteko helburua dute euskal ekitaldiek.

Euskal ekitaldien egitaraua

Igandea 3

- **17:00** Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Borobilean ikuskizuna.

Asteazkena 6

- **10:00** Durangoko Azokara irteera.

Ostirala 15

- **21:30** Uxue Alberdi eta Xabier Terreros bertso-afarian, Iratxon*.

Larunbata 23

- **11:30** Euskaraz jolastu. Helduendako herri jolasak eta umeendako tailerra (alxorren bila)

Osteguna 4

- **12:00** Futbola euskaraz. Gurasoak seme-alaben kontra. Kiroldegian.
- *Txartelak 8ra arte Pikuxarren edo Iratxon.

Egitarau zabala Gazte Asanbladaren urteurrenean

Bakaikun abenduaren 2tik 9ra bitartean 20. urteurren ekitaldiak ospatuko dituzte

BAKAIKU

Badirudi atzo izan zela, baina ez. bi hamarkada bete dira Bakaikuko Gazte Asanblada sortu zenetik. Eta urteurrena behar bezala ospatzeko, bihar hasi eta hurrengo larunbatera arte irauen duen egitarauan denetariko ekitaldiak antolatu ditu Bakaikuko Gazte Asanbladak. Hori guztia *XX Izar Gorri Gazteon Lokarri* lelopean egingen da. Kontzertu, bertso-afari eta ospakizunekin batera, gaztetxean auzolana egiteko eta guztia txukun txukun uzteko aprobetxatuko dute Bakaikuko Gazte Asanbladako kideek.

Egitaraua

Larunbata 2

- **20:00** Kontzentrazioa: Hogeitaz gorri, gazteon lokarri.
- **20:30** Triki-poteoa.
- **22:00** Bertso-afaria.

Asteazkena 6

- **16:00** Auzolana gaztetxean.

Ostirala 8

- **Goizean** Garagardo tailerra.

Abenduak 9

- **20:00** Pintxo potea eta beer-pong txapelketa.
- **23:30** Kontzertua: Tocan 2 la polla. Dj Muxinkuen.



Ziordiko Santa Luzia ermita zena. ARTXIBOA

Ziordiarrek Santa Luzia ospatuko dute abenduaren 13an

Trikitilariak izanen dira eta pintxo-potean ibiltzeko aukera izanen dute herritarrek eta bisitariak

ZIORDIA

Abenduaren 13an, asteazkenean, 18:30etik aurrera, Santa Luzia eguna ospatuko dute ziordiarrek. Trikitilarien doinuak herrian barna zabalduko diren bitartean ziordiarrek herriko bi tabernetan, elkarrean eta gaztetxean egingen den pintxo-poteoan ibiltzeko aukera izanen dute.

41 urte dira ziordiarrek Santa Luzia ermitarik gabe gelditu zirela. Eraikin xumea zen eta kanpai-horman Sta Lucia ora pro nobis, año 1786 idatzia irakur zitekeen. 1797an gotzainak ermitako kontuetan 657 erreal eta 9 marabedi opatu zituen. 600 erreal ematea eta gainontzekoak sor zitezkeen ohiko gastuak estaltzeko erabiltzea agindu zuen. Santa Luzia ermita egungo igerilekuen parean zegoen, Eginorako bide bazterrean. 1971n zahar berritu zuten, baina 1976an herrirako sarrera berria egiteko bota zuten.

Kentzearen zergatia

Ziorditik N-1 errepidera ateratzeko bidea gaur egun autobia azpitik pasatzen den inguru horretan zegoen, trenbide pasabidearen ondoren. Herri erditik

harrobiko, teileriako, Jesus Lezea enpresako eta basotik enborez kargatutako kamioiak pasatzen ziren. Trafiko astun horrek kaleak hondatu, ur sarea hautsi eta ur ihesak eragiten zituen, ziordiarrendako arriskua izanik ere.

Udalak herrirako beste sarbide ziurrago baten beharra sumatu zuen, mendebalderagotik. Eta, horrela, trenbide pasa kenduko zuten. Aurreneko proiektua igerileku parean zegoen Pilareko ermita errespetatzen zuen. Baina igerilekuen proiektua ere udal agintarien esku artean zegoen eta bigarren proiektuan ermita kentzea aurreikusit zen. Hasiera batean, apezpikutzak ermita berria egitea eskatzen zuen. Baina negoziazioen ondoren, ermita botatzearen truke elizako teilatua, fatxada eta barruko aldea margotu zen, 1,2 milioi pezetaren truke.

Gaur egungo Ziordiko sarre-rako lanak 1976an hasi eta bukatu ziren. Entrecalanes eta Taboada enpresek egin zituzten lanak, 3.117.777 pezetaren truke. Pilareko ermitarekin batera kalbarioa desagertu zen. Ermitako harriak Zalduondora eraman zituzten.

Hartza ahizpak Nafarroako Gastronomiako Damak

Nafarroako sukaldaritzan egindako lana eta haren zabalkundean duten garrantzia aitortu zaie

ALTSASU

Nafarroako Gobernuak bederatzia emakumezko sukaldari omen-du zituen pasa den ostegunean. Omenduen artean Juana Mari, Manoli eta Julia Hartza ahizpa altsasuarrak daude, urteetan Iruñeko Hartza jatetxea kudeatu zutenak.

Nafarroako Gobernuak nekazaritzako kalitate bereziko elikagaien erreferentziak biltzen dituen marka bat du: Reyno Gourmet. Markak 10 urte bete zituela eta horren kontura egin zen emakumezko sukaldarien aitortza. Isabel Elizalde kontseilariak omendutako guztien "lana, karisma eta profesionaltasuna" aitortu ditu. Elizalderendako emakumezko horiek "ekintzaleak, enpresariak eta estrategak" dira, tokiko baliabideetan eta gertuko kalitatezko ekoizleengan konfiantza izanagatik. Zero km estrategian indarrean jarri zutela nabarmendu zuen ere.

Lacturalerendako Alimenta Navarra sarietako bat

Nekazaritzako elikagaien industriaren eta gastronomiaren garapenaren alde lan egiten duten enpresa, pertsona eta erakundeen lana aitortu asmoz sortu dira Alimenta Navarra sariak, www.navarracapital.es atariak banatzen dituenak. Bigarren edizioan Lacturale esnekien enpresa etxerriarra zegoen. Juanma Garro gerenteak jaso zuen aitortza.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



ONGI ERABILI HIL EDO BIZIKOA DA

ezin naiz mugitu,
bizikletatik erori
naiz eta!



Bai

zenbat
ibuprofeno eman
behar diot?



Ez

OSASUN KONTSULTAK T 948 290 290 telefonodeconsejosanitario.navarra.es

erre al
ditzaket gaur
uztondoak?



Ez

UZTONDOAK ERRETZEKO T 948 426 040 autorizacionquemamas.navarra.es

112 TELEFONOA EZ DA INFORMAZIOKOA
Urgentzia eta larrialdietarako telefonoa da.
Beharrezkoak ez diren deiek benetako urgentziako
deien kudeaketa oztopatzen dute.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Joan den astean egindako informazio batzarretako bat, Gure Etxean.

40 etxebizitza gehiagotan 5. edukiontzia erabaki dute

Kolektiboendako hitzaldiak emanen dute eta 900 730 450 doako telefonoan argibideak emanen dituzte

ALTSASU

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko kideek bosgarren edukiontzia ezarpenari buruzko hiru hitzaldi eman zituzten joan den astean. Alde Zaharrean, erdialdean eta zabalgunean egindako hitzaldietan materia organikoa Altsasun nola jasoko den jakinarazi zitzaizen hitzaldietara joan zirenei. Haietako 40k bosgarren edukiontzia erabiltzea erabaki zuten. Dagoeneko 205 etxebizitza dira pauso hori eman dutenak, % 5,44. Horiek guztiek Nafarroako Hondakin Partzuergoaren

deskontua izanen dute heldu den urteko errezihoan.

Mank-en eta Altsasuko Udaren akordioaren arabera heldu den urte akaberarako herriko hondakin gaikako bilketa %65koa izatea nahi da. Gaur egun % 28koa da, baina materia organikoa bereizita egoki jasoz gero kopuruak gora erraz egiten du. Hala, Europatik ezarritakoa beteko litzateke. Helburua lortu ahal izateko 3.767 etxeetatik guztienez 2.260k (% 60) eman behar dute izena. Ilbeltzaren 15ean hasiko dira materia organikoa Altsasun jasotzen.



Igandeko ekitaldian hainbat hizlari izan ziren. UTZITAKOIA

Justo De la Cueva Dokumentu eta Arxibo Gunearen aurkezpena

Justo De la Cuevak eta Margarita Aiestaranek bidu eta sortutako ondarea zaindu eta zabaltzea du helburu

ETXARRI ARANATZ

Justo De la Cuevak eta Margarita Aiestaranek hainbat hamarkadetan bildutako artxibo pribatu dokumentazio ugari dago. Haiek sortutakoa da zati bat, bildutakoa bestea. Horiek guztiak Justo De la Cueva Dokumentu eta Arxibo Gunean bildu dituzte. Haren aurkezpena igandean egin zuten. Agiritegia, www.justodelacueva.info, gizarte eta politika zientzietako 10.000 liburu inguru daude, zeinetan teoria eta historia marxista nabarmentzen diren. Frankismoari eta Euskal Herriko gertuko

historiari buruzko hainbat lan ere daude agiritegian. 1980, 1990 eta 2000 hamarkadetako dokumentazio pila dago.

Horrekin batera, 1960 eta 2010 artean bien sortze zientifikoa jasotzen da agiritegian. Hainbat gai lantzen diren 1.513 obra, Justok berak erreseina egindakoa. Gainera, 50 kutxetan dokumentazioa, kartelak, esku-orriak, bideoak eta agiri ugari dituzten lau disko gogor daude. Azken horiek katalogatzea falta da. Horri Basque Red Net web orrian argitaratutako analisi politikoak gehitu behar zaizkio.



Haurrak trukea erabakitzen. UTZITAKOIA

Trukearen eta berrerabilpen balioetan nota ona

Atakondoako ikasleak joko eta jostailuak trukatu zituzten. Munduko jolasetan ere aritu ziren

IRURTZUN

Karpatik 200 bat neska-mutiko pasa ziren larunbat goizean, aiton-amonak edo gurasoak lagunduta. Guztiak ere txartel bat zutela joan ziren. Hura karpan zeuden jostailuen eta jokoen artean bat aukeratzeko eta txartelaren truke hura eskuratzeko eskubidea ematen zien.

Elkarrekin mundua dasta

Txingurriye elkarteak Arroz Mundiala dastatzeko gonbidapena egin zien lakuntzarrei iganderako. "Munduko arrozen erara, hango eta hemengo zaporeak uztartuz" osatu zuten menua, arroza ardatz zuena. Bakoitzak bere erara prestatu eta, bitartean, elkarrengandik ikasteko aukera izan zen. Lakuntzarren arteko harremanak indartu ziren ere.



TXINGURRIYE



UTZITAKOIA

57ko kinto sakandarren bilkura

Duela bost urte Sakanako 1957an jaiotako Sakana guztiko kinto batzuk elkartu eta festa ederraz gozatu zuten. Euren 55. urteurrena ospatzeko elkartu ziren bezala, 60. urteurrenarekin gauza bera egitea erabaki zuten. Larunbatean izan zen hitzordua, Etxarri Aranatz. 30 bat kinto elkartu ziren giro ederrean. 65. urteurreneko ospakizuna lakuntzarrek antolatuko dute.

Auzobidek parkea izanen du urte akaberarako

Txiribulo Haur Eskolaren lanak egin eta gero libre geratu den eremuan egiten ari dira parke berria. Bestalde, Altsasuko Udala hainbat lan aurrera eramateko beharrezko tramitazioa egiten ari da.

Altsasuarrek parke berria izango dute aurki. Auzobide kalean Txiribulo Haur Eskolaren lanak egin eta gero libre geratu den eremuan. 852 metro karratuko espazioa hartuko du parke berriak, hegora emanen du eta Bargagaineko ikuspegi ederrez gozatzeko aukera izanen da bertatik.

Obrak aurreko astean hasi ziren eta 75.131 euroko aurrekontua dute eta diruzaintzako gerakinarekin ordainduko da. Gogoratu, abuztuan Udalaren gerakina 1.793.173 eurokoa zela. Promociones y pavimentaciones Balgorza enpresa da lanen arduraduna. Eremuan dauden 6 zuhaitzak errespetatuko dira eta zoruan baldosak eta lorategia tartekatuko dituzte. Bukarera, 5 banku jarriko dituzte.

Proiektuak martxan

Nafarroako Gobernuak 2017-2019 Tokiko Inbertsio Planean Altsasuko hainbat lan jaso ditu. Eta hain zuzen ere, lan horiek aurrera eramanez ahal izateko, edo hobeto esanda, lan horien erredakzioa egin ahal izateko, Altsasuko Udalak aurrekontuetan hainbat aldaketa onartu zituen pasa den asteko azken osoko bilkuran. Aipatu erredakzio lanek Tokiko Inbertsio Planaren



Auzobideko parkea egiteko lanak, atzo.

diru-laguntza partziala dute, eta gainontzekoa udalak ordainduko du, diruzaintzako gerakinarekin.

Batetik, argiteria publikoa berritu nahi da, bi fasetan. Led argiak dira jarri nahi direnak, energian aurrezteko. Proiektuaren erredakzioarako 4.692,98 euro bideratzea erabaki zuen Udalak.

Beste bat Altsasuko Amaia eta Bakea kaleen sareen berritzea eta kanalizazio eta pabimentazio lanak dira. Proiektua egiteko 35.517,76 euro bideratuko dira. Hirugarrenik, Isidoro Melero

eta Ermita kaleetan ere sareen berritzea eta kanalizazio eta pabimentazio lanak eginen dira. Kasu honetan, erredakzioa egiteko 27.790 euro bideratuko dira.

Laugarrenik, udaletxean oztopo arkitektonikoak gainditzeko lanak eginen dira, igogailua jarriko da eta komunak berrituko dira. Proiektuaren erredakzioa egiteko 5.350,73 euro bideratzea erabaki zuen udalak. Udaletxeko teilatua konponduko da, filtrazioak ekiditeko. Proiektu horren erredakzioarako zenbatekoa 2.968,34 eurokoa da.



Aurreko bilketa bateko ohiko irudia. ARTXIBOA

Elikagai bilketa erraldoia eginen da asteburuan

Nafarroako Elikagai Bankuak gaur eta bihar egingo du elikagai bilketa, Sakanako ohiko tokitan izanen da

SAKANA

Gure ohiko dendetan kaxa handiak egongo dira gaur eta bihar; gure borondatea eskatzen dute, elikagaietan. Bildutakoa Nafarroako Elikagai Bankura bideratuko da. Aurtengo bilketa inoiz baino erraldoiagoa izatea nahi du Nafarroako Elikagai Bankua Fundazioak. Izan ere, erraldoiak dira dauden beharrak. Familia askok jotzen dute haiengana elikagai bila. Askorendako, duten iturri bakarra da. "2017an, lastailera arte, Nafarroako Elikagai Bankuan 3.151 elikagai tona banatu ditugu 207 entitateetan, 8.300 familiara iritsi direnak, 32.000 pertsonatik gora. Hori Nafarroako biztanleen %5a da. 2008tik, elikagaia jasotzen dutenen kopuruak %30 egin du gora" adierazi du bankuko presidente Gregorio Yoldik.

Nafarroako Elikagai Bankuak aditzera eman duenez, Nafarroan

244 komertziok, 77 botikek, hondakinen zerbitzua kudeatzen duten mankomunitateek, garraiolari boluntarioek eta 2.800 boluntariok baino gehiagok hartuko dute parte ekimenean, tartean sakandarrak.

Hortaz, asteburu honetan, gure erosketak egitearekin batera, behar dutenendako ere zeozer erostea da proposatzen digutena. Jakina, ez dute jaki freskoak izan behar, irauten dutenak baizik, kontserbak, pasta, olioak, gosaritarako produktuak -galletak, kakaoa...- Sakanan, saltoki handiez gain, herrietako denda txikietan ere egingo da janari bilketa.

Boluntario izateko

Oraindik ere boluntarioak behar ditu Nafarroako Elikagai Bankuak. Interesatuak www.bancoalimentosnavarra.org web orrira jo dezakete.



SUWOW

SUV TRINKO BERRIA

CITROËN C3 AIRCROSS

Leku gehiago, modularitate gehiago
#Aukeragehiago

520 l. maletategia
Modularitate marka
Citroën Advanced Comfort
Atzeko eserleku irristakorrak
Gidatzeko 12 laguntza
Pertsonalizatorako 85 aukera
Jetsierako kontrolerako Grip kontrola



130€/HILABETEKO
47 kouta. Sarrera 3.516,93€
TAE:7,96%.Azken kuota 8.079,67€
Eskaintza 2017/11/30 arte

[4] URTE
MANTENIMEDUA BARNE

citroen.es

INSPIRED BY YOU

CITROËN nahago du TOTAL KONTSUMO MIXTOA (L/100KM) CO2 ISURIA (G/KM): CITROËN C3 AIRCROSS: 4,0 - 5,6 / 104 - 126 (1) PVP Penintsula eta Balear irletan aholkatutako prezioa C3 Aircross PureTech 82 Feel 14.725€ (zergak, garraioa eta eskaintza barne), PSA Financial Services Spain, EFC, finantzatzen duten bezero partikularrentzako eta 48 hilabeteko iraunkortasunarekin. Finantzial onarpenari lotuta, 48 hilabeteko kontrato bateko iraupenerako eta 50.000km-erako. Irekiera gastuekin finantzatutako kapitala: 11.650,79€. Irekiera gastuak: 442,72€. TIN: 6,4%. Zor den zenbatekoa: 14.189,67€. Epeka prezioa: 17.706,6€. Kontratoaren amaieran ibilgailua itzuli edo azken kuota berfinantziatu aukeratu da. Prezioak Idealdrive zerbitzuaren kontratazioa barne du, eskura ordaindutako 1.025€-ren truke (erabilera arruntetan markak prekonizatutako errebisioak, piezak desgaztea salbu eta lan-orduak barne), 48 hilabetean edo 50.000km (gertatzen den lehenbizikoa). Estaldurak/ eskulioak kontsultatu www.citroen.es-en edo kontzesionarioan. Finantzatuko ez duen bezeroarentzako prezioa: 16.225€. eskaintza 2017/11/30 arte. Ikusgai dagoena: C3 Aircross Shine berria 17.600€tik hasita. Bertsioen arabera ekipamendu erabilgarriak. Automóviles Citroën España, S.A. c/dr. Esquedo, 62 - 28007 Madrid. CIF:A-82844473

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Aralarko santutegira udan igo diren bisitariek arkeologoen indusketa ikusteko aukera izan dute.

Hipotesi ugari Aralarren

Santutegiaren jatorria argitzeko bigarren urtez egindako arkeologia-indusketek gerora egiaztatu beharko diren usteak utzi dituzte. Opatutako horma sendoaren egitekoa eta santutegia inguratzen duen egitura zirkularra zer diren aztertzen segituko dute 2018an

UHARTE ARAKIL

Aditu arkeologia zerbitzuak kooperatibako kideak 2010ean Uhar-te Arakilera, Zamartzera, helburu jakin batekin etorri ziren: Nafarroako Erdi Aroko populazioa hobeki ezagutzeko ikerke-

ta egitea, eta bide batez erromanizazioa bukatu zenetik Erdi Arora bitarteko tarteari buruzko argibideak lortzea. Sei urtez arkeologia indusketak egin zituzten Zamartzeko elizaren inguruan. 300 gorpuzkitik gora berreskuratu zituzten, erromatarren garaitik hasi eta Erdi Arora arte.

Opatutakoen artean Donejakue bidea egiten ari ziren erromesen aztarnak zeuden. Nafar populazioa nolakoa izan zitekeen jakiteko, gorpuzkiak zerekin kontrastatu? Fran Valle de Tarazaga Monterok (indusketa eta ikerketa arduraduna) eta Emma Bonthornek (osteoarkeologoa, hezurduren arduraduna) zuzentzen duten arkeologia lantaldea erantzun bila mendira begiratu zuten. Bazekiten Larrate enpresak 2009an indusketa txikia egin zuela santutegiko absidearen

ondoan eta hilerria agertu zela. Aralarko kanpo santuko hezurdurak kontrasterako proposak izanen zirela pentsatu zuten.

Jakina, indusketak santutegiaren sorrerari buruzko argibide gehiago lortzeko aukera ere badira, “agiri gutxi baitago. Ongi legoke eliza une historiko jakinekin lotzea”. Santutegia beti erabili da, eta beharretara egokitu da. “Hori guretako arazo bat da”. XI. mendeko agiri batek aurretik ere bazela dio. 1098an eta 1141an zaharberritze lan handiak egin zituzten, birsortu, eta sagaratu egin zuten

KRISTAUTASUN HASIERAKO BARRUTI SAKRATUA, TEMPUSA, ARALARREN DAGOEN AZTERTZEN ARI DIRA

eliza. Santutegiaren azalpen argia eman zuen aita Burgik 1774an. Bestelako dokumenturik ez dago. Valle de Tarazagak azaldu duenez, eraikineko zati zaharrena absidea da. Eliza barruko ezker-eskuineko galeriak “birsortzeekin, sagaratzeekin lotu daitezke”. 1942an erre ondoren, ostatua berria da eta santutegiko teilatuko zinborioa 70. hamarkadakoa.

Paretak

Arkeologoen joan den urtean egindako lanagatik bazekiten lana zutela hilerrian. Horregatik aurten handik gorpuzki guztiak ateratzeko lantalde handia osatu eta lortu dute hura “hustea”. Beste lantalde batek santutegi inguruan lagin-zuloak egin zituen. Hilerrria absidetik 15-20 metrora bukatzen da. Handik Pilareko ermitarako tartean ez dute ezer opatu. Elizaren eremua iparraldetik ixten duen harresiaren ondoan dauden lizarren ondoan 70eko hamarkadan botatako borda baten harrizko zorua opatu dute eta horren eta santutegiaren artean atera dira galderak sorrarazi dituzten paretak.

Elizaren diagonalean dagoen 80 cm zabal duen paretak dago, “elizako paretak baino zabalagoa da”. Eskuadraturako harriz eta morteroz eginda dago eta kontrahormak ditu. Ez dakite horma elizaraino iritsiko den, eta haren berri emanen lukeen dokumentaziorik ez dago. Paretak horri perpendikularki itsatsitako beste bi paretak daude, ondoren eginak. Azken horietako harriak ez daude hain eskuadraturatu eta ez dute mortairurik. Hiruren artean U makurtu moduko bat sortzen dute. “Uste dugu horma horiek XII., XI. mendetik atzera eramaten gaituztela”.

Denbora faltagatik ezin izan dituzte hormak behar bezala ikertu. Aurten ikusi dute bigarrenez berrereabiliak izan direla. Horma sendoaren inguruan zulatu nahi dute, batetik, ziurtatzeko sakonera jakin bateraino zutik dagoela. Bestetik, XI. mendekoak lirakeen hilobiratzek opatu dituztelako aipatutako paretak horietako baten eroritako harrien azpian, iparraldean. Metro eta erdiko buztin beta bat dago. Heldu den urtean bueltatuko dira, “aurreikusia ez bagenuen ere”.

Hipotesiak

Jakinik santutegirako bide edo sarrera historikoa iparraldetik izan zela, Valle de Tarazagak horma horien inguruko hiru hipotesi mahaigaineratu ditu: “kontrahormak dituen paretak ez dago elizarekin lerrotatuta, bai, ordea, sarrerarekin. Santutegia erasotzen erraza zen garai bateko defentsak sistema litzateke, X. mendea eta XI. mende hasiera”.

Arkeologoen uste du paretak horren defentsak egitekoak bukatu zenean espazio bat sortu zela elizari “egokitzen” zaizkion bi paretekin. “Horma horietako bat erori zela opatu dugu, baita espazioko harlauzak, zorua”. Barruan urtutako zilar eta brontze arrasto ugari opatu dituzte. Baita txanponak ere. Baxerarik edo bestelakorik ez dutenez opatu, espazio horren egitekoak elizarekin erlazio zuzena duela uste dute ikerlariek.

Tempusa?

Arkeologoen begi trebatuek kofradia etxearen mendebaldean santutegiko murruez aparte desnibel bat ikusi zuten. Eremua inguratzen duen zirkulu erdiko egitura bat atzeman dute, lurra “hozkatuta” balego bezala zegoela ohartu ziren. “Behintzat iparraldean esparru bat sortzeko nahia dago. Forma emanda dago, plataforma bat sortzeko”. Tempusa, kristautasunaren hasierako barruti sakratua ote den pentsatu dute. “Oso-oso arraroak dira halakoak eta baieztatu behar genuke. Inguruan ezagutzen den bakarra Armentiakoa da, zulatutako fosa bat zen hura”.

Elizaren eta kofradia etxearen mendebaldera egindako indusketan zulatuta egindako oinarri bat ikusi zuten. Oinarri horren gainean paretak dago, lurra-ri itsatsia dagoena, “muga bat markatzeko”. Elizaren inguruan borobil erdia osatzen du. “Segitzen duzu eta santutegiaren iparraldean efektu bera lortzeko haitza tailatuta dagoela ikusten da. Santutegia inguratzen duen muga borobil bat litzateke”. Heldu den urtean bizpahiru lagin-zulo egin nahi litzukete hori baieztatu ahal izateko.

Aita Burgik santutegiaren bere deskribapenean esaten duenez, Artxueta magalean komunitate edo herrixka baten arrastoak ikusten ziren 1774ean. Egungo errepidetik goraxo litzateke.






Kontrahormak dituen pareta zabala behean eta ondoren eraikitako bestea. Iparraldera hobi gehiago agertu dira. ADITU



Santutegiko absidearen ondoan zegoen hilerrria. Eskuinean, behean, harriz egindako hobia nabarmentzen da.



Lantzak zulatutako eta zartatutako femurra, indarkeria arrasto nabarmena. ADITU

Hezurdurak

Bi urteetako indusketek hilerritik 28 gorpuzki ateratzea ekarri du (aurten 13): 25 heldurenak, nerabe batena eta 6 urtetik beherako birena; emakumezkoak eta gizonezkoak, nahiz eta oraindik ezin izan duten zehatz zehaztu. Espero baino gehiago. Danee Wilson osteoarkeologoak larunbatean azaldu zuenez, hezurdurak posizio anatomikoan agertu ziren, baina hezurdura guztiak ez daude osorik. Horren arrazoa, hobiak berrerabiliak izan

zirela. Hobi bakar batean lau gorpuzki opatu zituztela gazitatu zuen.

Wilsonek joan den urtean opatutako hilobi aniztuna nabarmendu zuen, "arraroa, banakakoak zirelako". Hirurak aldi berean hil eta hilobia hirurendako propio egin zutela argi dute, hilobia harrizko lauki batez inguratuta baitago. "Hirurek ere traumak, indarkeria arrastoak dituzte. Baten saihe-tsen azpian lantza batek opatu zen". Hiruetako batek aldaka arazoak zituen, ezker hankako femurra lantza batek zartatu zion. Masail hezurrean dagoen arrastoagatik bati zintzurra egin ziotela. Beste batek lantza batek buruhezurrean utzitako arrastoa du. Hori guztia azterketa sakonagoa egin aurretik dakite. Hirurendako hilobi horretan aurretik zegoen hezurdura kendu eta berrerabili zutela ere badakite arkeologoek.

Indarkeriazko gertakari horien zergatiak beste hiru hipotesi utzi dituzte mahai gainean. Batetik, musulmanen erasoaldiak izan litezke; garai haietan eliza asko suntsitu ziren. "Litekeena da orduan aurreneko eliza hura desegitea". Baina ez da musulmanen armarik opatu. Bestetik, Nabarrieriako gerra izan liteke, Iruñetik kanpo ere nabaritu zena. Azkena, Arabatik eta Gipuzkoatik egindako erasoak lirateke. "Halakoetan helburua lapurtzea eta kontrola zen, ez hiltzea". Gorpuzkien erantzunak santutegiaren historia argitzen lagunduko duten esperantza dute arkeologoek.

Bada harritu dituen hobi bat ere, harriz eta morteroz eginkoa, 2,6 metro luze ditu. Adituko kideek uste dute pertsona "garrantzitsu" batena izan lite-

keela gorpua. Aralarko elizako harrien mozketa bera dute harri horiek, beraz, soberan zeuden edo berrerabiliak izan diren harriak direla pentsatzen dute, "agian santutegiaren birsortze batekin zerkusia zuen pertsona batena izan daiteke". Horra argitzeko dagoen beste hipotesi bat. Zamartzen antzeko hilobi bakarra opatu zuten.

Karbono 14ko proba eginen diete hezurrei data bat izateko. Hilerrian beharaino jaitsi dira, harriraino. "Beheko mailak erabilera txikiagoa dute. Pentsatzen dugu Zamartzekoaren antzeko kronologia duela". Kondairaren arabera VIII. mendean sortu zen santutegia. Ikerketak esanen du gorpuzkiak ordukoak diren edo ez. Haien hipotesia da X-XI. mendetik XIV. mendera bitartekoak direla.

Opatutakoak

Ezohikoak diren elementuak agertu dira eta horrek santutegia bere historian kokatzen laguntzen dute. XI. eta XIV. mendeetako hainbat txanpon opatu dituzte. Horien artean Teobaldo erregeenak eta Woodstock-eko Eduardoren Galesko azken printzearen, Printze Beltzaren txanpon bat opatu dituzte. Azken hori Akitanian izan zen eta Nafarroako Erresumarekin erlazioa izan zuen. Armak ere opatu dituzte: gezi eta lantza puntak. Oraindik ezin izan dute jakin zein garaikoak diren.

IPARRALDEAN AGERTUTAKO HORMAREN JATORRIAZ HIRU HIPOTESI DITUZTE



*Enbaxerak
sisten dituzte!*

Zuk jeri mahaira eta guk jana!

PAZKO GAUEAN ETA URTE ZAHARREAN MENU BEREZIAK
PRESTATZEN DITUGU, 21:00AK ARTE IREKITA

Enpresendako prestaketa zerbitzuak

· Fernando Urkia kalea, 29 · Arbizu ·
· 686 654 382 · 666 616 303 · 687 371 939 ·

Sakandarrak presoan alde Parisen izanen dira

Abenduaren 9an parisko mobilizaziora joateko autobus txartelak larunbatera arte eskuratu daitezke. Bestetik, Zama doinuaz arinduz musika jaialdia ilbeltzaren 14an izanen dela eta sarrerak salgai daudela jakinarazi dute

SAKANA

Bakearen Artisauak abenduaren 9rako Parisen *Orain presoak!* lelopean manifestazioa antolatu dute. Sakanako Sarek jakinarazi digunez, Parisera joateko autobusetan izena emateko epea bihar bukatuko da. Ohiko tokietan eman daiteke izena Irurtzunen, Uhartea Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzan, Bakaikun, Altsasun eta Olatzagutian. Saretik izena ematera deitu dituzte sakandarrak.

Dagoeneko sakandarrek autobus bat bete dute. Hura abenduaren 8an, 23:00etan Altsasutik abiatuko da. Etxarrin (23:15ean)



Larriki gaixo dauden 13 presoek askatasuna eskatzeko auto karabana.

eta Irurtzunen (23:30ean) geldialdiak egin ondoren, Parisera 10:30 aldera iritsiko da eta 11:30ean abiatuko den manifestazioan parte hartuko dute. Aldarrikapenarekin batera festa izanen da hainbat musikari ezagunekin. Arratsaldeko lehen orduan etxerako bidea hartuko dute. Hendaiatik-Pariserako joan-etorria bi trenak egingen dute egunean bertan eta haietan ere sakandarrak izanen dira.

Garrantziaz

Saretik diotenez, presoena “konponbidean jarri beharra dugu elkarbizitzan, giza eskubideen errespetuan eta benetako bake iraunkor batean sinisten badugu behintzat. Eta estatuen blokeoen aurrean gizarte aktibazioak eta herri mobilizazioak puskatu dezaketela blokeo hori ere sinesten dugu”. Abenduaren 9an Frantziako estatuari “euskar presoek aplikatzen zaien salbuespeneko legedia indargabetu dezan” eskatuko diote. Frantzian mugimenduak daudela eta haiek baliatu beharra dagoela nabarmendu dute Saretik, horrela “Espainiako estatuari zailago

egingo zaiolako mantentzen presoekiko eta gatazkaren konponbidea oztopatuz darabilen salbuespeneko politika hori”.

Bestalde, Sakanako Sare herritarrek antolatuta protestaldi mugikorra egin zen larunbatean ibarrean barna. Etxarri Aranatzetik abiatu eta Irurtzun eta Ziorria helmuga zuten bi auto karabana abiatu ziren. Larriki gaixo dauden 13 presoek askatasuna aldarrikatu zuten.

Kontzertua

Zama doinuaz arinduz musika jaialdiaren hirugarren edizioa antolatu du Etxarri Aranazko Sarek. Kontzertua ilbeltzaren 14an, 17:30ean eta 19:30ean, izanen da eta honako musikariek parte hartuko dute: Mikel Ur-dangarin, Niko Etxart, Alex Sardui eta Haimar Arejita (Gatibu), Kutxi Romero, Ines Osinaga, Petti, Jurgi Ekiza eta Irati Lasa eta lagunak. Sarrerak Etxarri Aranazko udaletxeko kultura bulegoan (astez, 09:00etatik 13:00etara), Xapatero eta Leku Ona tabernetan eros daitezke. Edo www.etxarriaranatz.eus web gunean.

JARRI KOLOREA
NEGU TXURIARI

ESKUORRIAK
KARTELAK
PEGATINAK
PUBLIZITATEA
LOGOAK
KAMISETAK



Preso dauden gazteak askatzeko oihuak entzun ziren igandean.

Jendetzak auzipetuak babestu zituen

“Muntaia aurrera doa”. Hala adierazi dute herri asanbladatik igandeko manifestazioaren ondoren. 5.000 pertsona elkartu ziren “urte bat espetxean. Altsasukoak aske. Adur, Jokin eta Oihan askatu” lelopean egin zen manifestazioan

ALTSASU

Igandean urte bat bete zen. Urte bat Altsasuk ezagutu duen manifestazio handiena egin dela. Joan den urteko azaroaren 26an jendea haserre atera zen kalera. Zortzi gazte espetxeratuak eta hedabide batzuk hankapean ibilitako herriaren izena ziren haserre haren arrazoiak. Altsasuarrenak eta manifestazioan bildu ziren 20.000 pertsonenak.

Txalo artean abiatu zen manifestazio hura. Eta hala egin zuen igandekoak ere. Iortia kultur guneko zabalgunetik manifestazio buruan zihoazen asanbladako kideak eta haien atzetik Altsasukoak aske pankarta handia zeramaten gurasoek. Bidean

hainbat lelo oihukatu zituzten manifestariak: Altsasukoak aske; Adur, Jokin, Oihan, askatu; hau ez da terrorismoa eta justizia nahi dugu. Manifestazio burua Erkuden eta Amaia kaleen bigurutzera iritsi zenean akabera Bakea kalea eta Amaia kalean zegoen. 500 metroko espazioa hartu zuen mobilizazioak eta puntu batetik manifestari guztiei pasatzea ia 12 minutu kosta zitzaien.

Manifestazioa deitu ondoren etorri zen epaiketaren dataren jakinarazpena: 2018ko apirilaren 17tik 27ra. Ordurako preso dauden hiru gazteek 17 hilabete egingen dituzte kartzelan. Herri asanbladatik gogoratu zuten

defentsen proba asko “tribunalak arbuia” dituela. “Horrek dugun beldurrean berresten gaitu, iruzurrez beteriko epaiketa zikin bati egin beharko diogu aurre. Gezurrek jarraitzen dute, manipulazioek jarraitzen dute... muntaia aurrera doa”.

Horren aurrean herri asanbladatik adierazi zutenenez, “elkartasuna dugu indar, eta indartsu gaude”. Nahiz eta aitortu “urte gogorra” izan dela. Hedabide batzuek hasieran izandako jokabidearekin, sarekadarekin gero, “honek guztiak ezkututzen zituen interesez kontziente izan ginen, baita muntaia hau elikatzen duten estamentuen potentziaz”. Salatu zutenenez, “Al-

tsasu kriminalizatzeko makineria oso bat jarri zuten martxan, zilegi diren ideiak zein aldarrikapenak kriminalizatzeko, gazteria kriminalizatu eta zigortzeko”. Horretarako 10 gazteren bitzita aurretik eraman dutela, eta haiekin herri oso batena nabarmendu zuten.

Horren guztiaren aurrean herria besoak gurutzatuta ez dela gelditu eta elkartasuna eta mobilizazioak nabarmendu zituzten herri asanbladatik. Isun eta mehatxuen aurretik herriaren duintasuna nabarmendu zuten. “Gure ahotsen eta usteen indarraz gurean berresten gara, arrazoi dugu eta hori defendatuko dugu, herri bezala”.

Deia

Herri asanbladako kideek parte hartzeko bi deialdi egin zituzten. Alde batetik, antolatu duten literatur lehiaketan parte hartzeko: “jendearen kontakizuna eraiki nahi dugu, egunerokoa bizi dugun kontakizuna. Gezuraren gainean egia jarri nahi dugu”. Ilbeltzaren 4ra arte parte hartu daitekeela gogorarazi zuten. Atzo bestalde, hurrengo hilabeteetako 14. egunetako mobilizazioak, eguberrietakoak eta bestelako mobilizazioak zehazteko batzarra egin zen.

Datuak

80.000. Altsasuko gurasoen manifestuak sinadura kopuru hori lortu ditu. Hemen sina daiteke.

53.000.

Euroko gastua izan dute auzipetuen familiek.

182.000 km

Espetxetarako bidaietan egingandakoak.

eta berme guztiko prozesu izateko eskubidea errespetatuz”.

Aldi berean, gobernuak Europako Batzordeari eskatu dio, zehaztu dezala “Espainiak behar bezala egin ote duen terrorismoaren zigor tratamenduari buruzko Europar Batasunaren aurreikuspenen transposizioa”. Horrekin batera, Altsasuko kasua dela eta fiskalak egindako eskaria eta Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunaren 49.3 artikuluan aurreikusitakoa bat datozen zehaztu dezala.

Galdeketa gogoan, egitaraua eta adierazpena

Gure Esku Dagok antolatutako galdeketa "balioa" aitortu du Bakaikuko Udalak

BAKAIKU

Astelehenean urtea bete zen bakaikuarrek *Herri independente bateko herritarrak izan nahi duzu* galderari erantzun ziotela. Erabakitze eskubidea praktikan jarri zuen herri galdeketa honako emaitzak utzi zituen: % 80k baiezkota eman zuen, % 13,4k ezezkoa, 10 boto txuri eta bi boto baliogabe. Baina emaitza baino gehiago herri galdeketa izan zen arrakasta ospatu da asteburuan.

Egitaraua ostiralean erabakitze eskubidearen inguruan egindako mahai-inguruarekin abiarazi zuten. Arlo horretan dauden egitekoez aritu ziren ostiralean. Galdeketa egunerako atzera-kontua hartu zuen hautetsontzi erraldoiari erabileria berria ematea erabaki dute. Etxetxo bihurtuta haurren jolas-parkean jarri zuten larunbatean, herri bazkariaren aurretik. Galdeketa egunerako argazki erakusketa izan zen ikusgai larunbatean.

Udalaren adierazpena

2016ko azaroaren 27koa “bakaikuarrendako egun ahaztezi-na” izan zela nabarmendu du udalak. Eta azpimarratu “herri galdeketa balioa zenbakiez haratago doa”. Udaleko kideen iritziz, “egun horietan Bakaikuko herriak garaipen handia lortu zuen”. Eta horiek zerrendatu ditu: “herria batu zen, hesiak eta hormak gaintzeko balio izan zuen; era askean bere erabakiaren jabe izan daitekeela erakutsi zuen; auto-antolakuntza gaitasun handia erakutsi zuen; balore demokratikoetan sakontu zuen eta ondoko herriek bide bera jarraitzeko akuilu bihurtu zen”. Udalak bakaikuarrak animatu ditu “etorkizunean erabakitze eskubidearen alde bide demokratikoetan sakontzen jarraitzeko”. Udalak bidelagun izanen dela esan zuen.

Parlamentuarekin bat egin du Nafarroako Gobernuak

Altsasuko auzia Iruñera bueltatzea eskatu du, besteak beste. Foru administrazioak Europara joko du

ALTSASU

Nafarroako Gobernuak asteartean erabaki zuen bat egitea Nafarroako Parlamentuak onartutakoarekin. Orduko hartan Altsasuko auziaren inguruko erakunde-adierazpena onartu

zuen, berresten zuena “Altsasun eta Nafarroa guztian bakearekin eta elkarbizitzarekin konpromisoa”. Aldi berean, auzian “dagoen proportzionaltasun faltak” sortzen dion “kezka gorena” adierazi zuen Parlamentuak.

Gogoratu zuen 375 urteko espetxe zigor eskaerak Europako Batasuneko eskubide eta askatasunen arduradunaren adierazpena ekarri duela. Hiru auzipetu behin-behinean espetxean egotea eta defentsak aurkeztutako proba gehienak ukatzeak gazteen defentsa gabezia ekar dezakeelako kezka azaldu du. Azkenik, Parlamentuak “beharrakotzat jo” zuen auzian “eskumena duten epaitegi organoek proportzionaltasunez jokatzeko, gazteek lege babes eraginkorra

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 1

ALTSASU Play txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ALTSASU Ni neu Galtzeta Iker Uriberen eta Joana Zigandaren albumaren aurkezpena.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Elkartasuna abiarazteko, errepresioari erantzuteko, Altsasu Herrialde Katalanekin, batzarra.
19:00etan, Gure Etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Una mujer fantástica filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Embajada eta Not Scientists taldeen kontzertuak.
22:30, gaztetxean.

LARUNBATA 2

ALTSASU Play txapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Zer gertatzen ari da Katalunian? hitzaldia emanen du Fabia Diaz Coertesek, Barbera del Vallesko CUPeko zinegotziak.
18:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU Benito Lertxundiren kontzertua.
20:00etan, Burunda frontoian.

IGANDEA 3

ALTSASU Ordozko saroira 54 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.
09:00etan, klubeko bajeratik.
9:45ean Urbasako kanpinean.

IRURTZUN Iruñeko Jesusen Bihotza parrokiako abesbatzaren kontzertua.
13:00etan, elizan.

LAKUNTZA Etxarri Aranazko abesbatzaren kontzertua.
13:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Iruñeko Orfeoiairen kontzertua.
13:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Erkudengo Ama abesbatzaren kontzertua.
13:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Pirritx, Porrotx eta Marimotsek Borobilean ikuskizuna aurkeztuko dute.
17:00etan, kiroldegian.

ALTSASU Amarillito filmaren emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Grafitti tailerra 3an, 4an eta 5ean.
17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU El viajante filmaren emanaldia.
17:30etan eta 19:45ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Una mujer fantástica filmaren emanaldia.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 4

ALTSASU Grafitti tailerra egonen da astelehenetik domekara.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Eskulanak.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ASTEAZKENA 6

IRURTZUN Durangoko Azokara irteera antolatu du Aizpea euskaltzaleen topaguneak.
10:00etan, autobus geltokitik.

ALTSASU Ane eta ohe hegalaria musika-antzezlanak.
17:30etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 7

ALTSASU El secreto de Marrowbone filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu eta gaixoak etxera. Amnistia osoa! Kontzentrazioa.
19:30etan, plazan.

OSTIRALA 8

ALTSASU Serigrafia tailerra.
17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU El secreto de Marrowbone filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 9

LAKUNTZA Le tango noir taldearen kontzertua.
19:00etan, kultur etxean.

BAKAIKU Tokan2LaPolla tributu taldearen kontzertua.
23:30etan, elkartean.

IGANDEA 10

SAKANA Sakanako Mendizaleak Azpeitiara joanen dira.
07:00etan, Irurtzundik abiatuko da autobusa.

ALTSASU Tafalla-Gerindako mendilerroa arteko 40 km-ko ibilbidea eginen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.
07:30etan, klubeko bajeratik.

ALTSASU Haurrak eta lapurrak 2 filmaren emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Yo, Daniel Blake filmaren emanaldia.
17:30etan eta 19:45etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU El secreto de Marrowbone filmaren emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTEAZKENA 13

LAKUNTZA Txokolate-jana.
19:00etan, Gure Nahia jubilatuta elkartean.

ALTSASU Los retos de las mujeres y los feminismos en los próximos años hitzaldia emanen du Saioa Iraola Urkiolak.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 14

UHARTE ARAKIL Gozogintza lehiaketa antolatu du Donibane elkartek. Gozoak ordu erdi lehenago aurkeztu beharko dira eta ondoren dastaketa izanen da.
18:00etan, jubilatuta elkartean.

ETXARRI ARANATZ Mari Luz Estebanen Feminismoa eta politikaren eraldaketak liburuz hizketazera elkartuko da irakurle taldea.
19:00etan, liburutegian.

ALTSASU La librería filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Haiz Lazkoz Ginea
ZORIONAK guapisimo!!
Asteartean beteko dituzu 5 urte, egun ona pasa eta muxu pila bat familia guztiaren partez.



Elai
ZORIONAK politta! Muxu asko Hegoiren, aiton-amonen eta osaba-izeben partez.



Elai
Zorionak Popiñe! Gure rubixak urte bat bete du! Yuuuuu!!! Izeba, osaba eta Hegoixoren partez muxurik erraldoiena zutzako



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860




**ALTSASU Pott eta... 2017. Denboraren soinuak**

Juan Barriolaren Nafarroako frontoien argazki zaharren gaineko interbentzioak egin ditu Patxi Aldunetek

Abenduaren 6tik 31ra arte astegunetan 18:30etik

21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Emakume modaren 100 urte.**

Emakume janzkeraren garapena erakusten duen erakusketa prestatu du Iruñeko erreinuko etnografia museoak. **Abenduaren 3ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.**

**OLATZAGUTIA Jaiotzen erakusketa.**

Olatzagutia. Sakanako belenzaleen elkarteak San Sebastian ermitan eta bere egoitzan jarri ditu jaiotzak ikusgai. **Abenduaren 8tik ilbeltzaren 7ra arte, astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara eta domeketan 13:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.**

ESKELA

**Paula Mendia Barandiaran**

Bihotzez, beti eskertuko dizugu eman diguzuna.

Etxekoak

**Joxe Lazkano Azpiroz**

"Toto"

Urteurrenoko meza, gaur, abenduaren 1ean, ostiralean, 18.30ean izango da

Sorgiñeko mahaian zure umore ona eta bizipoza gogoratzen jarraitzen dugu

Zure familia

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

Establezimendu publikoa saltzen da Uharte Arakilen. Tel 650 153 240.

OHARRAK

Odol-emaileak. Uharte Arakil: Abenduak 17, 17:00-20:30

Etxarri Aranazko irakurle taldea. Hurrengo hitzordua: abenduaren 14an izanen da, ostegunean, 19:00etan liburutegian. Mari Luz Estebanen Feminismoa eta politikaren eraldaketak liburuz ariko dira hizketan.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkarizta eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresariaren Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzatenadako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner Iruñean. Landa-errek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundazioetik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 100 2 173 8 7 0200346965

www.iragarkilaburak.com

I. URTEURRENA

X. URTEURRENA

**Borja Ondarra Ondarra**

Bakaikun, 2007ko abenduaren 2an



Izatez, ospakizun musika, etxeko guztien melodia; akordeoia ardatz, herriko barre-argaren iturria.

Zuhaitz urriz jantziriko bidezidorra hartu eta doinu berri bati hasiera eman zenion. Nahiz eta entzun ez, nahi dugu harekin dantzatu.

Etxekoak

X. URTEURRENA




**Borja Ondarra Ondarra**

Gure artean jarraitzen duzu gure barnean bizirik, zure argazkiak iraungo baitu izar guztien artetik. Faltan botatzen zaitugu, lagun betiko joan zinenetik, baina ez dago adiorikan soilik gero arte baizik.

Zure lagunak



EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 1**Larunbata, 2****Igandea, 3****Astelehena, 4**

HERIOTZAK

• **Paula Mendia Barandiaran**, azaroaren 28an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

40 tanatorios
IRACHE
aniversario
Tanatorioak: Altsasu - Iruñea - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70
🐦 @Grupolrache
📘 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

Binakako Txapelketa Irurtzunera dator

PILOTA Binakako 2. jardunaldian Ezkurdiak eta Zabaletak Iribarria eta Merino II.a izango dituzte arerio gaur Irurtzunen (22:00, ETB1). Atzo Altuna III.a eta Martija Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra aritu ziren Eibarren

Hasi da txapelketarik luzeena: Binakako Txapelketa. Ostiralean Olaizola II.aren eta Imazen kontra aritu ziren Joseba Ezkurdia arbizuarra eta Jose Javier Zabaleta etxarrendarra. Ongi ekin zioten partidari sakandarrek, arerioen akatsak aprobetxatuz, eta nagusitasunez 0 eta 4 aurreratu ziren. Baina Olaizola II.ak eta Imazek partidari buelta eman zioten eta 11 eta 1eko partzialarekin, 12 eta 5 aurreratzea lortu zuten. Sakandarrak saiatu ziren, baina, azkenean, 22 eta 13 irabazi zuten Olaizola II.ak eta Imazek. Hortaz, lehen jardunaldian ez zen punturik izan sakandarrendako.

Bestalde, Binakako Txapelketan aurreko larunbatean debutatu zuen Julen Martijak. Etxeberriko atzelariak eta Altuna III.ak sekulako partida egin zuten, eta Urrutikoetxeari eta Ladis Galarzari 16 eta 22 irabazi zieten. Partida batez ere aurreko koadroetan jokatu zen, eta Altuna izan zen onena. Etxeberrikoaren laguntzarekin, hasieratik aurrea hartu zuten markagailuan. 11 eta 5 aurreratu ziren markagailuan, baina Asegarekoak 21 eta 12 hurbildu ziren. Urrutikoetxea saiatu zen, baina Galarza ez zen oso fin ibili. Hobeki moldatu zen Martija, eta, azkenean, 16 eta 22 irabazi eta gero, txapelketako lehen puntua lortu zuten Altunak eta Martijak. "Oso pozik nago. Altuna bezalako pilotari batekin jokatzeko sekulako pribilegioa da" aipatu zuen Etxeberrikoak.

Ezkurdia eta Zabaleta gaur, ostiralean, Irurtzunen

Atzo, ostegunarekin, hasi zen Binakako Txapelketako hasierako ligaxkakako 2. jardunaldia. Hain zuzen ere, Altuna III.ak eta Martijak atzo, San Andres egunean aritu ziren Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra. Guaixeko erredakzioa ixterakoan



Zabaleta, Ezkurdia, Iribarria eta Merino, Irurtzungo material aukeraketan. ASPE

EZKURDIAK ETA ZABALETAK IRRIBARRIA ETA MERINO DITUZTE AURKARI IRURTZUNEN

oraindik ez genuen emaitzaren berririk.

Nabarmenezkoa da 2. jardunaldiko partida bat Sakanara etorriko dela. Hain zuzen ere, Irurtzungo Bi Aizpe pilotalekuan programatu dute gaurko, ostiraleko partida, Ezkurdiak eta Zabaletak Iribarriaren eta Merino II.aren kontra jokatu dutena (22:00, ETB1). Ea sakandarrek euren lehen puntua lortzen duten. Jaialdia zabaltzen duen partidari Elordik eta Lasa IV.ak Etxeberria eta Jaunarena izango dituzte aurkari.

MARTIJAK PRIMERAKO DEBUTA EGIN DU. ATZO EIBARREN JOKATZEKO ZEN

Binakako Txapelketa

Emaitzak eta bigarren jardunerako datorrena

1. jarduneko emaitzak

Olaizola II.a-Imaz 22 / Ezkurdia-Zabaleta 13
Urrutikoetxea-Ladis Galarza 16 / Altuna III.a-Martija 22
Bengoetxea VI.a-Larunbe 16 / Victor-Albisu 22
Elezkano II.a-Rezusta 22 / Iribarria-Merino II.a 15

2. jarduneko partidak

Elezkano II.a-Rezusta / Altuna III.a-Martija (atzo, ostegunarekin, Eibarren).
Ezkurdia-Zabaleta / Iribarria-Merino II.a (ostiralean, 22:00etan, Irurtzunen. ETB1)
Bengoetxea VI.a-Larunbe / Olaizola II.a-Imaz (larunbatean, Lizarran)
Urrutikoetxea-Galarza / Victor-Albisu (igandean, Zierbenan, 17:00etan. ETB1)



Sakanako Harri Jasotze Eskolakoak, Sakanako Herri Kirol egunean.

Harri jasotzaile izan nahi duzu? Zatoz Sakanako eskolara

HARRI JASOTZEA Sakanako Harri Jasotze Eskola eta zentro teknikoan izena ematea zabalik dago

Sakanako Mankomunitateak herri kirolak sustatzeko lanetan jarraitzen du. Aurten, beste behin, Mank-ek Nafarroako Gobernuaren eta Irurtzungo Udaren laguntzaz sustatutako Sakanako harri jasotze eskolak eta zentro teknikoak ateak zabalduko ditu. Harri jasotzean aritu edo hasi nahi dutenek harriekin trebatzeko aukera esku eskura izanen dute.

Mikel Lasarte harri jasotzaile irurtzundarrak gidatuko du harri jasotze eskola. Asteazkenetan ariko dira trebakuntza lanean, 18:30etik 20:00etara, Irurtzungo

kiroldegian, ekainera bitartean. 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena eta klasera joatea derrigorrezkoa izango da. Izena ematea zabalik dago, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866). Klaseak euskaraz izango dira, baina baten batek ez badaki, gaztelaniaz zuzenduko zaio.

Sakanako harri jasotze eskola 2004/2005 ikasturtean sortu zen. Orditik makina bat kirolari trebatu dira. Indarra baino, teknika da garrantzitsuago. Baina teknika, indarra, konfiantza... guztia da beharrezkoa eta hori sakonduko dute eskolan.

Iñigo Aritza Pilota Txapelketan final handiak jokoan

PILOTA Abenduaren 10ean jokatuko dira finalak, 17:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan


XX. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketak baditu finalistak. Txapelketa urriaren 22an hasi zen eta, orditik, astebururo txapelketako ligaxkak eta finalerdiak jokatu dira.

Ikastolako Lehen Hezkuntzako 3. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailara bitarteko neska-mutilek parte hartu dute. Orain arteko partidak ikastolako frontoian jokatu dira. Finalak, aldiz, Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatu dira, abenduaren 10ean, 17:00etan.

Iñigo Aritzako finalak

Bederatzi final guztira

- **LH3:** Harri – Urko
- **LH4:** Asier – Eñaut
- **LH5:** Haizea – June Xabier – Aimar
- **LH6:** Patxi – Oier
- **DBH1:** Arkaitz – Harri
- **DBH2:** Irati – Olatz Jon – Aimar
- **DBH3:** Inar – Ekhi



Yanira Aristorena palista etxarriarra dago partaideen artean. UTZITAKOA

XIII. Sakanako Nesken Pala Torneoa igandean hasiko da

PALA Gure Pilota Sakanako XIII. Nesken Pala Torneoko bi partida jokatuko dira etzi Etxarrin, 11:00etan

Igandean hasiko da Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Gure Pilota elkartearen eta Arbizuko eta Etxarri Aranzko Udalen laguntzarekin antolatutako XIII. Sakanako Nesken Pala Torneoa. Txapelketa bi mailatan jokatuko da, gaztetxoan mailan eta helduen mailan. Gaztetxoan mailan pottokak, usoak, kategoria eta txitoak multzoak ariko dira lehian eta, helduen mailan, elite maila eta promozioa. Aipatzekoa da Sakanako Nesken Pala Torneoa puntako txapelketa dela eta egungo palista onenak lehiatzen direla bertan. Tartean daude hainbat sakandar, Yanira Aristorena, Olaia Eizagirre, Uxue Mendinueta, Izar Parot eta Anne Maiza, esaterako.

Txapelketa ligaxkan erabakiko da. Lau jardunaldi izanen dira guztira, bat abenduko asteburu bakoitzeko. Partidak ostiral eta larunbat arratsaldetan eta igande goizetan jokatuko dira, Arbizuko eta Etxarri Aranzko pilotalekuan batez ere, baina beste herri batzuetan jokatzea ere aurreikusten da.

Helduen mailan, elite mailan eta promozioan, lau jardunaldi jokatuko dira ligaxkan, abenduaren 3an, 10ean, 17an eta 23an. Aurten ez da final aurrekorik izanen; ligaxkako lehen bi bikoteek jokatuko dute finala, abenduaren 31n, goizez.

Helduen mailan, elite mailako bikoteak ondokoak dira: Yanira Aristorena – Maite Ruiz de Larramendi, Uxue Murillo – Leire

Etxaniz, Miren Goikoetxea – Garazi Eizmendi eta Susana Muneta – Maddi Mendizabal. Eta promozio mailan: Garazi Suarez – Izar Parot, Miren Larrarte – Uxue Mendinueta, Irati Otaegi – Olaia Eizagirre eta Naroa Suarez – Anne Maiza.

Sakanako Nesken Pala Torneoa

1. jarduna. Igandean, 11:00etan, Etxarrin

Eliteak: Goikoetxea – Eizmendi / Murillo – Etxaniz

Promozioa: Otaegi – Eizagirre / Suarez I.a – Maiza

Eliteak: Aristorena – Ruiz de Larramendi / Muneta – Mendizabal (atzeratuta)

2. jarduna. Abenduaren 10ean, 11:00etan, Olaztin

Promozioa: Suarez II.a – Parot / Larrarte – Mendinueta

Eliteak: Murillo – Etxaniz / Muneta – Mendizabal



Aurreko urteko Sakanako Pilota Txapelketa finalistak, finalak jokatuta berritan. UTZITAKOA

Sakanako Pilota Txapelketa abian

PILOTA Maila guztiak kontuan hartuta, guztira Sakanako klubetako 112 pilotari lehiatuko dira XXX. Sakanako Pilota Txapelketan. Ostiralean Olaztin eta Lakuntzan jokatuko dira partidak. Finalak Lakuntzako San Saastinetan jokatuko dira

Asteburuan hasiko da Sakanako makina bat kirol klub eta elkarrek antolatutako XXX. Sakanako Pilota Txapelketa. Maila guztiak kontuan hartuta, guztira 112 pilotari lehiatuko dira, Sakanako ondoko klubetakoak: Olaztiko Sutegi, Altsasuko Pilotajauku, Etxarri Aranzko Gure Pilota, Arbizuko Aldabide, Lakuntza Pilota Elkartea eta Irurtzun kirol elkartea.

Kategoriei dagokienez, 11 kategoriatan jokatuko da txapelketa: txikiak (4 biko), umeak 2 (5 biko), umeak 1 (4 biko), kimuak 2 (14 biko), kimuak 1 (9 biko), haurrak 2 (4 biko), haurrak 1 (3 biko), kadeteak 2 (3 biko), kadeteak 1 (2 biko), jubenilak (6 biko) eta nagusiak (2 biko).

Asteburu honetan, ostiralean Olaztin eta Lakuntzan jokatuko dira partidak, eta hurrengo asteburuan Arbizun eta beste herriren batean. Aipatu txapelketarekin, pilota sustatzeaz gain, pilotari sakandarrei txapelketa batean aritzeko aukera eman nahi zaie, txikienei bereziki.

Finala ilbeltzaren 20an, Lakuntzako San Saastinetan

XXX. Sakanako Pilota Txapelketa finalak ilbeltzaren 20an jokatuko dira, San Saastin festetan murgilduta egongo den Lakuntzan.

Sakanako Pilota Txapelketa

Hurrengo egunetan jokatuko diren partidak

Gaur, ostiralean, 17:30ean, Olaztin

- Rubio-Lizarraga (Olaz) / Gasco-Alegre (Alts)
- Larrañaga-Gorospe (Olaz) / Ulaiar-Urteaga (Alts)
- Izaro-Aimar (Olaz) / Olaiz-Carabias (Alts)
- Fernandez-Gonzalez (Alts) / Izagirre-Reparaz (Arb)
- Reparaz-Saez (Arb) / Saralegi-Munarriz (Irur)
- Etxeberria-laben (Irur) / Okiñena-Amiano (Irur)
- Añazco-Sao Roque (Lak) / Gorka-Eduardo

Gaur, ostiralean, 18:00etan, Lakuntzan

- Gurmino-Saracibar (Olaz) / Alegria-Alegria (Lak)
- Beloki-Olaetxea (Irur) / Apaolaza-Bergara (Lak)
- Lanza-Marquez (Alts) / Etxabarri-Razkin (Arb)
- Garmendia-Manjón (Arb) / Lizarraga-Etxeberria (Irur)
- Ducar-Razkin (Arb) / Escudero-Nagore (Irur)
- Zubiria-Olarra (Arb) / Berastegi-Ganboa (Lak)

Abenduaren 9an, 11:00etan, Arbizun

- Igoa-Azpeitia (Alts) / Miteku-Maren (Etx)
- Amado-Arretxe (Arb) / Martiarena-Markina (Irur)
- Ioritz-Enaitz (Etx) / Leiza-Gainzarain (Arb)
- Zabala-Apaolaza (Lak) / Lizarraga-Manjón (Arb)





Sakana Triatloi Taldeko kideak, 2017 denboraldiko aurkezpenean.

Nafarroako txapeldun laranjak

DUATLOIA / TRIATLOIA Larunbatean 2017 denboraldiko sariak banatu ziren Nafarroako Triatloi Galan. Sakana Triatloi Taldeko Nahia Imaz, Francisco Javier Gomez eta Peio Bergara Nafarroako txapeldunak dira eta Juan Luis Maiza ere oholtzara igo zen

Larunbatean Sarrigurenako Maristas ikastetxeak Nafarroako Triatloi Gala hartu zuen. 2017 denboraldiko Nafar Kirol Jolasen Duatloi eta Triatloi Txapelketetako sariak eta Nafarroako Duatloi eta Triatloi Zirkuituko sariak banatu ziren bertan.

Sakana Triatloi Taldeko kideek denboraldi bikaina egin dute eta oholtza gainera igotzea ego-

kitu zitzairen. Nafar Kirol Jolasetan, haurren, kadeteen eta juniorren mailako sariak banatu ziren. Sakana Triatloi Taldeko Nahia Imaz Nafarroako triatloi eta duatloi txapelduna izan da emakumezkoen haurren mailan. Sari bikoitza jaso zuen, beraz, sakandarrak.

Maila nagusian, Nafarroako Duatloi Zirkuituan, Sakana Triat-

loi Taldea Nafarroako txapeldunordea izan da, taldeka, Tri-Ur-

NAHIA IMAZ NAFARROAKO TXAPELDUN BIKOITZA DA, DUATLOIAN ETA TRIATLOIAN

Gazia txapeldunaren atzetik. Beterano 2 mailan talde sakan-darreko Francisco Javier Gomezek Nafarroako txapeldunaren saria jaso zuen. Aldi berean, Gomez gizonezkoen maila absolutuko Nafarroako txapeldunordea izan zen. Sakana taldeko Juan Luis Maizarendako, berriz, beranoen 2 mailako sailkapeneko hirugarren saria izan zen. Eta beteterano 3 mailan, 60 urtez gorako mailan, Sakana taldeko Peio Bergarak jaso zuen Nafarroako txapeldunaren saria.

Garciak Espainiako Kopa jaso zuen

Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra Espainiako Koparako baliagarriak ziren Orihuelako Triatloian, Iruñeko Half Triatloian, Valentziako Triatloian eta Guadalajarako Half Triatloian lehiatu zen udan. Egindako lan bikainari esker, Sakana Triatloi Taldekoa Espainiako Distantzia Erdiko Kopako proba absolutuan 16.a sailkatu zen, eta bere adin tartean, 35-39 urteen artekoan, Espainiako txapelduna izan da. Sari ematea lbizan izan zen, baina altsasuarrak ezin izan zuen bertan egon eta Espainiako txapeldunaren sari hori larunbatean jaso zuen, Nafarroako Triatloi Galan.



Iriarte eta Gil, Sakanako Lasterketan.

MENDI LASTERKETAK Ezkion eta Erripagainan txukun

Ezkioko mendi mistoa jokatu zen asteburuan, binaka lehiatu beharreko proba. Paul Bereziartua eta Irene Loizatek irabazi zuten proba (29:44). Sakana Bizirik taldeko Mikel Iriartek Aitana Gilekin osatu zuen bikoa eta podiumera igo ziren, hirugarrenak sartu baitziren helmugara (32:13). Ainhoa Markinez olaztiarra eta Egoitz Lasa idiazabaldarrak osatutako bikotea 25.a sailkatu zen (39:09).

Bestalde, Erripagaina Urban Trail 13 km-ko proban 87 korrikolari lehiatu ziren eta Xabier Zarranzek (53:39) irabazi zuen. Julen Lizarraga 12.a sartu zen (1:00:12). 7 km-ko proban Josu Galvez izan zen azkarrena (28:15) eta Jose Ignazio Otsoa 104.a.

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Espainiako Koparako sailkatu da

Ostiralean Levanteri 2 eta 5 irabazi eta gero, Osasuna Magnak beharrezko puntuak lortu ditu Madrilen jokatu den Espainiako Kopa ahal izateko. Partida serioa egin zuten berdeek eta Esevenri, Usin, Araça (2) eta Bynho izan ziren golegileak. "Kopara sailkatzea helburuetako bat zen eta oso kontentu gauden" azaldu du Imanol Arregi teknikariak.

Ligako sailkapenean Barcelona da lider (31 puntu) eta Osasuna Magna laugarrena (24 puntu). Gaur, ostiralean, Segovia hartuko dute berdeek Anaitasunan, 20:30ean, eta abenduaren 8an Peñiscolaren kontra ariko dira, atzera ere Anaitasunan.

MENDIA Azpeitira Sakanako Mendizaleekin

Abenduaren 10ean Azpeitian mendi irteera antolatu du Sakanako Mendizaleak taldeak. Autobusa Irurtzundik goizeko 7:00etan aterako da, izena eman duten mendizaleak hartzeko. Izena eman nahi duenak ohiko tokietara joan behar du, herrietako mendi arduradunengana, edo, bestela, 639 11 76 31 telefonora hots egin.

Rural Kutxaren kontzentrazioa

TXIRRINDULARITZA Rural Kutxa-Seguros RGA txirrindularitza talde profesionala eta afizionatua asteburuan Tuteran izan dira kontzentratuta, 2018 denboraldia prestatzen. Afizionatuen talde sakandarrak 21 txirrindulari izanen ditu eta Eneko Aramendia iturmendierra izango da sakandar bakarra, aurreko urtean taldekide zen Odei Juango ez baita ariko.



RURAL KUTXA

Bizitzan,

kirolean
bezala,

JOKO GARBIA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Lagun Artea – Beriain	0-3
Etxarri Aranatz – Infanzones	1-1
SAILKAPENA	
1. Infanzones	24
14. Lagun Artea	10
15. Etxarri Aranatz	6
PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
15:45 Arrotxapea – Etxarri Aranatz <i>El Iratin</i>	

IGANDEAN

15:30 Infanzones – Lagun Artea *Gazolaz*

Preferente mailako gure taldeek bolada makalean jarraitzen dute. Lakuntzan, sake baten ondoren aurreratu zen Beriain. Lagun Artea gol aukera ederrak sortu zituen; hirutan ere berdintzeko aukera izan zuten, baina ez zuten zortea alde izan. Aldiz, bi minutu eskaseta Beriainek bi gol sartu zituen eta 0 eta 3 irabazi zuen. Aldiz, jaitziera postuetan daude lakuntzarrak.

San Donato zelaian Etxarri Aranatzek Infanzones liderra hartu zuen. Bi taldeak bikain aritu ziren. Infanzonesek baloi geldiko jokaldi batean aurreratzeari lortu zuen. Arbitroak aldageletara bidali zuen Etxarriko Javi, baina etxarriarrek partidari buelta eman zioten eta Oihanek bana berdintzea lortu zuen.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Altsasu – Berriozar	0-2
SAILKAPENA	
1. Lagunak B	22
5. Altsasu	17
PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
18:00 San Ignacio – Altsasu <i>NUPen</i>	
ABENDUAREN 6AN	
19:30 Lagunak – Altsasu <i>Barañainen</i>	

Altsasuk eta Berriozarrek bigarren postua izan zuten jokoan. Tamalez, Berriozarrendako izan ziren.

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Castejon – Altsasu	3-2
SAILKAPENA	
1. Berriozar	36
14. Altsasu	11
PARTIDUAK	
IGANDEAN	
15:30 Altsasu – Amigo <i>Dantzalekun</i>	

Lagunak, ligako oilarretako baten kontra aritu ziren Altsasuko neskek. Ezin izan zuten sorpresarik eman eta puntuak Barañainera egin zuten ihes.



Barricarte lasterketa proba oso herrikoia da.

Altsasuko Barricarte memorial-lasterketa ate joka

ATLETISMOA Altsasuko Zubeztia elkarteak antolatuta, abenduaren 8an jokatu da proba herrikoia

Zubeztia elkarteak antolatutako 37. Oinezko lasterketa edo 34. Alberto Barricarte memoriale abenduaren 8an jokatu da, Ama Birjinaren egunean, ostiralean. Lasterketari 11:30ean emango zaio hasiera eta Altsasuko herri gunean prestatutako zirkuituari lau itzuli eman behar-ko zaizkio, guztira 10,6 km osatuz.

Lasterketa Zubeztia elkarteak antolatzen du, Altsasuko Udaren laguntzarekin. Festa eguna denez, eta abendua, gure korrikalariendako proba berezia da, urteko azkena den San Silvestrerako puntuan jartzeko proposa baita. Oso proba herrikoia da. Iaz, esaterako, 253 korrikalari lehiatu ziren, horietatik 36 sakandar, eta David Garcia (39:20) eta Izaskun Beunza (47:53) izan ziren txapeldunak.

Aurten 10,6 km

Zubeztia elkarteak herriko barna antolatutako zirkuituari lau buelta eman behar-ko dizkiote korrikalariak, guztira 12,2 km. Goizeko 11:30ean abiatuko da lasterketa, Zubeztia elkartearen albotik. Foruen Plazatik, eta Ferial eta Lapurbide kaleetatik barna Larrainbidera helduko dira korrikalariak, Zubeztia kalea pasatu eta gero Zelai kalea igotzeko. Zelai kaleko goialdean buelta hartu eta Isidoro Melerorantz joko dute lasterkariak, Araba eta Idartzagain kaleetatik Auzobidera heltzeko, eta handik Alzania kalea hartzeko. Alzania kaletik San Jua-

nera iritsiko dira korrikalariak eta bertatik Zubeztia elkartera joko dute, udaletxe aurrera, hura izango baita helmuga. Aipatu zirkuituari lau buelta eman eta gero despedituko da proba.

Izena ematea egunean bertan

Izena ematea dohainik da. Aurretik www.dantzalekusakana.com web gunean egin daiteke edo egunean bertan, 10:00etatik 11:30era, Gure Etxean. 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena. Bukaeran Zubeztia elkarteak hartuko du sari ematea, eta bildutako guztiendako auzate ederra izanen da. Gainera, sariak zozketatuko dira.

Sakanako atletismo kopako azken proba

Lasterketa honekin 2017ko Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariari bukaera emango zaio. Egun, emakumezkoetan Izaskun Beunza doa buruan, Ginesa Lopezen eta Leire Estarriagaren aurretik, eta, gizonezkoetan, Raul Audikana da lehen, Sergio Garcia de Eulateren eta Felix Benjumearen aurretik. Hortaz, abenduaren 8ko Altsasuko lasterketak erabakiko du sailkapena.

ALTSASUKO LASTERKETAK SAKANAKO ATLETISMO KOPA ERABAKIKO DU

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUAK	
IGANDEAN 5. JARDUNA OLAZTIN	
09:00 Tipi Tapa – Sutegi 1	
10:00 Sutegi 2 – Urdiain 1	
10:50 Lagun Artea 2 – Tipi Tapa 2	
11:40 Lagun Artea – Urdiain 2	
12:30 Etxarri Aranatz – Kaixo	
13:20 Etxarri Aranatz 2 – Kaixo 2	
BENJAMINAK	
ABENDUAREN 10EAN, LAKUNTZAN	
10:00 Aralar Mendi – Sutegi	
10:50 Lagun Artea A – Altsasu E	
11:40 Lagun Artea B – Altsasu D	
12:30 Etxarri Aranatz A – Altsasu B	
13:20 Etxarri Aranatz B – Altsasu A	

Sakanako Futbol Topaketen barruan, igandean, abenduaren 3an, Kimuen mailako 5. jardunaldia jokatu da Olaztin. Benjaminak, aldiz, hurrengo igandean lehiatuko dira, abenduaren 10ean. Zehazki, benjaminek Sakanako Futbol Topaketen 3. jardunaldia izanen dute jokoan Lakuntzan. Kasu honetan ere guztira 5 partida jokatu dituzte Olaztiko, Altsasuko, Etxarriko eta Lakuntzako futbol taldeek. Jakina denez, Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu Sakanako Futbol Topaketak, Sakanako futbol taldeen laguntzarekin. Helburua txikienei futbol partidetan aritzeko baliabideak ematea da, baina lehiakortasunik gabe. Horregatik ez da sailkapenik egiten.



ELOMENDI TXAPELKETA

EMAITZAK	
Elomendi – Zaldúa	0-1
SAILKAPENA	
1. Unziti	22
4. Zaldúa	16
PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
Zehaztu gabe Zaldúa – Modernillo <i>Lekunberrin</i>	

Sailkapeneko lehen 4 postuen artean soilik 6 puntuko aldea dago, eta, hortaz, oso estu dago Elomendi Txapelketa. Bihar Zalduak Modernillo du aurkari.



Aurreko urtean 10 talde aritu ziren.

II. Emakumeen Areto Futbol Txapelketa Irurtzunen

ARETO FUTBOLA Guan taldeak antolatuta, abenduaren 30ean izanen da eta izena ematea zabalik dago

Irurtzango Guan taldeak, Irurtzango Udaren laguntzarekin, II. Emakumeen Areto Futbol Txapelketa antolatu du Irurtzunen. Aurreko urtean arrakasta handia izan zen lehenengoz jokatu zen txapelketa eta horregatik aurten ere antolatzea erabaki dute. 10 taldek hartu zuten parte eta final handian, Gasteizko New Team taldeak Dulantzi taldeari irabazi zion.

Aurtengo txapelketa abenduaren 30ean jokatu da baina dagoeneko talde interesatuek izena emateko aukera dute (676 572 478, Inaki). Talde bakoitzak 80 euro ordaindu beharko ditu. Abenduaren 28an izena eman duten taldeen zozketa egingo du antolakuntzak.

Sailkatzen diren lehen lau taldeek saria jasoko dute, eta, horretaz gain, jokalariek hoberena eta atezain hoberena ere izendatuko dira. Bestalde, final handiko atsedendian saski eder bat zozketatuko dute.

AURREKO URTEAN 10 TALDE LEHIATU ZIREN ETA GASTEIZKO NEW TEAM IZAN ZEN TXAPELDUNA

Maria Markotegi sormen sariketan berritasuna

Ikasleei zuzendutako lehiaketan ohiko narrazio labur, poesia eta komiki sailei aurten booktubeena gehitu zaie. Azken hori ikasle helduenendako izanen da. Bideo batean gogoko duten liburuaren gomendioa edo iritziak zabaltzean datza booktubea

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Maria Markotegi lehiaketaren deialdia egin berri du. Ikasleen euskarazko sormena sustatu nahi du sariketarak. Orain arte hiru sail izan ditu lehiaketak: narrazio laburra, poesia eta komikia. Horiei aurten booktubea gehitu zaio. Hau da, sail horretan parte hartzen duten ikasleek gogoko duten liburu baten inguruko iritziak edo hura gomendatuz azalpenak eman beharko dituzte bideo batean. Liburu aurkezpen dinamikoa eta atseginak sortzen dira horrela.



Aurtengo lehiaketako irudia.

Sariak

Lehiaketara aurkezten diren parte-hartzaile guztiek sari bana izanen dute. Gainera, maila bakoitzeko bina sari banatuko dute epaileek. Saritu guztiek eBook bana jasoko dute. Lehiaketak bost maila ditu: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak; Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak; DBHko 1. eta 2. mailak; DBHko 3. eta 4. mailak eta Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena. Maila bakoitzean bina sari emanen dira eta guztiek sari bera jasoko dute eBook bana.

Ikasleek euren lanak plika sistema erabiliz aurkeztu behar dituzte Mank-en Lakuntzako egoitzan. Lanak aurkezteko epea 2018ko martxoaren 23ko 15:00etan despedituko da. Ikastetxeek eta liburutegiak ikasleen lanak aurkezteko aukera izanen dute.

Baldintzak

Lanak honako baldintzak kontuan hartu beharko dituzte: lanak originalak izan behar dute, aurretik saritu eta argitaratu gabeak, bakarkakoak eta euskaraz sortuak. Ez dituzte bertso

paperak onartuko. Narrazio laburren eta poemen kasuan idazleek 12 puntuko hizki tamaina erabili beharko dute. Komikien kasuan, txuri-beltzean edo kolorez aurkeztu ahal dira. Mank-etik azken lan horiek A3 tamainan aurkeztea aholkatu dute, testuak ongi ikusi ahal izateko. Booktube bideoen kasuan USB memoria giltza batean aurkeztu beharko dira edo, bestela, wetransfer bidez euskaral@sakana-mank.eus helbidera bidali beharko da, beste fitxategi datuak gaineratu beharko dira.



Lehiaketaren berri emateko esku-orriko irudia.

Euskalduntzen ari direnendako sormen lehiaketa deitu da

Idazlanak 100 eta 150 hitz artean izan beharko dituzte eta aurkezteko epea martxoaren 22an despedituko da

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskaltegiak ikasleei eta Mintzakide programako partaideei zuzendutako nanoipuin lehiaketa antolatu du. Batzuek eta besteek sakandarrak izan behar dute lehiaketan parte hartzeko. Literatur sariketarak hiru maila ditu: A1 eta A2 mailako ikasleendako dena, B1 mailako ikasleena eta, azkenik, B2 eta C1 mailako ikasleena. Mintzakide programako kideek duten eza-gutzaren pareko mailan parte hartuko dute.

Euskaraz idatzitako testuak argitaratu gabeak izanen dira, jatorrizkoak eta beste lehiaketaren batean saririk jaso ez dutenak. Testuetan ez dira indarkeria, sexismoa, arrazakeria edo bestelako eskubide urraketak sustatzen dituzten lanak ez dira onartuko. Idazlanak euskaral@sakana-mank.eus e-posta helbidera pdf formatuan bidali beharko dira. Idazlearen datuak aparteko dokumentu batean gaineratu beharko dira (izen-abizenak, telefonoa, helbidea, e-posta eta ikasketa-maila). Saritutako lanen egileek eBook bana jasoko dute.

Haur eta gaztetxo kantarien jaialdien egoitzak zehazten

Antsoainen (martxoaren 3an edo 10ean), Altsasun (17an), Oibarren (24an) eta beste bat falta da

SAKANA

Euskaraz kantatzeko zaletasuna sustatzeko helburuz antolatzen dira Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari Jaialdiak. 6 eta 16 urte arteko haur eta gazteek eman dezakete izena bakarka, binaka edo taldeka. Abestu, berriak, kantu zaharrak, berriak, haiek sortu edo moldatutakoak kanta ditzakete, dela a capella, zuzeneko musikak lagunduta edo karaoke moduan. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago e-posta honetan: amadominguez@tafallaikastola.org.



Haurrak Lakuntzako jaialdian kantari.

Narrazio labur, poema, komiki eta booktubeen luzera

Maila	Narrazio laburra	Poesia	Komikia	Booktubea
Lehen Hezkuntzako 3. eta 4.	Orrialde 1 g utxienez 4 orrialde gehienez	10 lerro gutxienez 50 lerro gehienez	Orrialde 1 gutxienez 2 orrialde gehienez	
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.	2 orrialde gutxienez 5 orrialde gehienez	20 lerro gutxienez 50 lerro gehienez	Orrialde 1 gutxienez 3 orrialde gehienez	
DBHko 1. eta 2.	3 orrialde gutxienez 6 orrialde gehienez	30 lerro gutxienez 80 lerro gehienez	2 orrialde gutxienez 4 orrialde gehienez	Minutu eta erdi gutxienez 2 minutu gehienez
DBHko 3. eta 4.	4 orrialde gutxienez 7 orrialde gehienez	40 lerro gutxienez 80 lerro gehienez	2 orrialde gutxienez 5 orrialde gehienez	Minutu eta erdi gutxienez 3 minutu gehienez
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloak				2 minutu gutxienez 4 minutu gehienez

Haurrak album ilustratuetara hurbiltzeko lantegia Altsasun

Txikiak album ilustratuetara gerturatzeko Etxepare programaren barruan kokatzen da tailerra

ALTSASU

Album ilustratuak liburu handiak dira, marrazki koloretsu handiz eta testu labur ederrez osatuta. Horiek nola egiten diren ikasteko aukera izanen dute 6 eta 10 urte bitarteko haurrek

Yolanda Arrieta idazlearekin eta Aitziber Alonso ilustratzailearekin. Haien laguntzarekin, izena ematen duten haur guztien artean irudi liburua sortuko dute. Eta, bukatzean, parte-har-tzaile bakoitzak etxera sortuta-

ko albumaren zati bat eramateko aukera izanen du.

Lehen Hezkuntzan ikasten ari diren haurrei zuzendutako tailerra abenduaren 29an izanen da, 17:00etatik 19:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. Izena eman nahi duenak abenduaren 26ra arte egin dezake, 948 564 272 telefonora hots eginez edo iortia@altsasu.net e-postara bidaliz. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatatu du lantegia, Altsasuko Udalaren laguntzaz.



Haurrak album ilustratuen tailerlean. ARTXIBOA

Musika antzerkia Euskararen egunerako

0 eta 6 urte arteko haurrendako antzezlanak asteazkenean, 17:30ean, Iortia kultur gunean

ALTSASU

Bazen behin neskatiko bat lo egitea gorroto zuena. Garai batean amonak ipuinak kontatzen zizkion ohatzera joan aurretik, baina Anek lau urte ditu orain, eta amonarik ez, eta bere gelan bakarrik gelditzen denean ez du begirik bildu nahi izaten... Halako batean denboran zeharko bidaiara batean sartuko da, Nafarroan barna eramanez duena, "neskatiko baten ilusioetan zehar eta familia baten bizipenetan zehar". Horixe da *Ane eta ohe hegalaria* musika-antzezlanaren mamia.

Antzezlanak *Xaldun kortin* materialean oinarrituta dago: ahozko tradizioetik berreskuratu dira herri ipuinak, jolasak, esapideak eta kantak; horiek guztiak XXI. mendeko haurrei itzultzeko. Oier Zuñiga eta Laura Villanueva aktoreek jokatu dute obra. 0tik 6 urte bitarteko haurrak dituzten familiendako da bereziki, eta 45 minutu irauten du.

Euskarabideak eta Nafarroako Gobernuak, Euskararen Nazioarteko Eguna izanen dela-eta, familiarendako antzerki musikaduna sustatu dute eta Labrit Multimedialeko ekoiztu du, Altsasuko Udalaren eta Sakanako Mankomunitatearen laguntzaz.



Labriten egindako aurkezpena. UTZITAKOIA

Frontoiei eskainitako erakusketa Altsasuko Iortian

Juan Barriolak eta Patxi Aldunatek herri-kultura goratu eta ondarea kontserbatu asmoz lan garaikidea egin dute

ALTSASU

Pilotalekuak herrietako plaza irekiak izan diren heinean haren bizitzaren lekuko izan dira. Frontoia euskal herrietako espazio bereizgarria eta propioa da. Kirola egiteko tokiaz aparte giza erlazioak egiteko lekua ere bada frontoia. Hori guztia ikuspegi berri batetik eta grafikoki dokumentatuta ematen du *Denboraren soinuak* erakusketak, Pott eta... 2017 proiektuak ondu duena, hau da, Juan Barriolak eta Patxi Aldunatek.

Frontoiekin betidanik erakarri dute sortzaileen arreta, hasi Goia margolariarengandik eta Jorge Oteiza eskultorearekin edota Jesus Maria Lazkano margolariarekin bukatu arte. Erakusketa horren bidez "lehen guri espazio mitiko horrek eskainitako arreta bueltatzeko modua" eman nahi dute sortzaileek. Horregatik, "espazioak

sortzen duen magia" jaso nahi izan dute, "lehen eta oraina nahastuz, etorkizunera begira".

Pintura garaikidearen marrokoan, ikerketa proiektua garatu dute. Haren bidez iraganeko irudiak berreskuratu dituzte, XIX. eta XX. mendeetako ohitura-pintura eta gerra ondorengo formulazio estetikoak uztartuz.

Erakusketa batetik bestera dagoen bitartean ikerketa zabalik izanen dute. Herriz herriko ibilbidea Iruñeko Labrit frontoian hasi zuen erakusketak, han mustu zuten. Eta ibilbidea han despiditza nahi dute. Baina herriz herriko ibilbide hori osatzen ari dela Altsasura iritsi da erakusketa eta Iortia kultur gunean hilabete guztia emanen du, heldu den asteazkenetik abenduaren 31ra arte ikusgai izanen da; astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

Zer ikusiko dugu neguan gure inguruko dendetan?

Sakanako neguak ez dira makalak, eta bero-bero joan behar dugu. Zer dago dendetan?

Batetik pana, berriz ere modan jarri da galtzetan nahiz soinekoetan; beroa da eta hausteko zaila. Bestetik dentela edo "encaje" delakoa ere oso modan dago, eta ez bakarrik gauetan janzteko; dotoretasun, feminitate eta sentsualitate ikonoa da. Edozein jantzitan ikusiko dugu: soinekoak, kamisetak, txaketak edozein erataria eta edozein momentutan.

Koadroak, Galesko printzea bereziki: britainiarra, klasikoa eta neurriduna, indartsu dator gonetan, txaketetan, galtza zabaletan eta kapaz jarritako arropetan izaltzen dira.

Lumak. Material honetaz hitz egitean normalena gaueko osagarrietan eta baita burukoetan ere pentsatzea da. Baina, gonon azpiko partean, botetan, poltsetan eta soinekotan atentzia jarriko dugu. Plumiferoak, nola ez! Sakanako neguetan beharrezkoa da horrelako materialak erabiltzea, neguko jantzia, beroa eta geroz eta politagoa baita.

Iraultza berri bat heldu da! Gaur egun galtzak ez dira bakarrik beltzak eta kolore lisokoak, geroz eta gehiago

fantasiazkoak, puntuzkoak, loreduak edo hainbat irudi ezberdinekoak datozelako.

Hauek nolana konbinatuko ditugu; nik nahiago dut gona edo soineko liseekin, finago geratzen dela iruditzen zait.

Belarritakoek oso handiak izan behar dute, koloretsuak eta asimétrikoak. Ez dira lotsatentzat izan behar. Eta, jakina, aurten ez ditugu mosketari botak ahaztuko. Tendentzia hau oso zaila da janzten, baina ikusiko dugu. Bota hauek oso luzeak dira, belaunaren gainetik geratzen dira eta ez da erraza izaten hauek ongi geratzea.

Prakaren kolore bera badute, hanka luzeagoaren itxura emanen du. Sexiak dira, negurako beroak eta edozein janzkerari elegante puntua ematen diote. Duela urte batzuk ere oso modan jarri ziren, kolore guztietan, baina aurten gehienbat granateak, beltzak eta "camel" marroiak dira ohikoenak. Gustukoenak? Ile-guridunak.

Azkenik, plumiferoaren antzera, ia-ia oinarritzeko joko duguna...larrua! Orain arte gehienbat txaketetan ikusi dugu, hala ere, aurten indartsu dator bai gonetan baita praktetan ere. Ohikoenak gorria, berdea eta beltza izan dira.

Benito Lertxundiren kantaldia hartuko du bihar Altsasuk

Burunda frontoian izanen da, 20:00etan. Kantari oriotarrak kantu berriak sartuko ditu erreperitorioan

ALTSASU

Ferietako larunbatean eman ezin izan zuen kontzertua bihar eskainiko du Benito Lertxundik. Folk musika beste estilo batzuekin nahastu ditu, esaterako, *Oroimenaren oraina* (2015, Elkar)

azken diskoan. Haren aurkezpen biraren ondoren, Altsasun bere diskografiako pieza ezagunak oraindik ere argitaratu gabeko kantuekin batera emanen ditu. Horietan, bere barne hausnarketak, Fernando Pessoa edota

Jorge Bucay olerkiekin konposatutakoak daude tartean.

Oriotarra honako musikarien laguntza izanen du eszenan: Juantxo Zeberio (piano eta sintetizadorea), Amaiur Cajaraville (baxua), David Gorospe (bateria), Angel Unzu (gitarra eta bouzuka), Gurutz Bikuña (gitarra), Xabier Zeberio (arrabita eta nyckelharpa), Pello Ramirez (eskusoinua eta bioloncelloa), Intza Unanue (koroak) eta Olatz Zugasti (harpa, teklatura eta aho-tsa).



Benito Lertxundik 52 disko ditu argitaratuta. UTZITAKOIA



Irakurle taldea bilduta. ARTXIBOA

Etxarriko irakurle taldearen hitzordu berria

Abenduaren 14an, 19:00etan, Etxarri Aranazko liburutegian elkartzeko dira

ETXARRI ARANATZ

Victoriano Huizi udal liburutegian hartuko du aterpe, atzera ere, Etxarri Aranazko irakurle taldeak. Hurrengo hitzordura Mari Luz Esteban *Feminismoa eta politikaren eraldaketak* (2017, Susa) liburua irakurrita joanen dira kideak eta hark sorrarazitakoen inguruan hizketatuko dira. Liburu horretan Estebanek feminismoak Euskal Herrian 1976tik gaur arte izan dituen ezaugarriak eta aldaketak aztertuko ditu. Baita horiek sorrarazten dituzten erronka berriak ere aurkezten ditu. Bere iritzia partekatu nahi duenak abenduaren 13an du hitzordua.

Nafarroaren eguneko soinu banda igandean entzungai

Kontzertuak 13:00etan hasiko dira Irurtzungo elizan eta Lakuntza, Altsasu eta Olatzagutiko kultur guneetan

SAKANA

Nafarroaren eguna igandean da eta hori ospatzeko foru administrazioak doako 91 kontzertu antolatu ditu herrialdean barna. Emanaldi horietan Nafarroako 91 abesbatza eta musika banda ariko dira. Kontzertu guztiak 13:00etan hasiko dira, modu berean: *Nafarroako himnoa* interpretatuz. Sakanak iragarritako emanaldietako lau hartuko ditu.

Etxarri Aranazko eta Erkundengo Ama abesbatzek euren erreperitorioa erlijio musikarekin batera, euskal eta Amerikako doinuez osatutako programa prestatu dute.

Altsasu

Iruñeko Orfeoia Altsasura programa "eklektikoa" ekarriko

duela jakinarazi du Igor Ijurra zuzendari etxarriarrak. Emanaldiak Euskal Herriko kantu tradizionalak, Ipar ameriketako folklorea, olerkari handien testuak dituzten doinuak, opera zatia, pop doinuez musika bertsoa eta Orfeoia orkestrarekin interpretatzen duen oratorio zatiak emanen dituzte. "Lan intimistak badaude ere, festa egun baterako, festa egitaraua da". Kontzertua "entzulea zain mantendu duen musika entsalada da, eta abesbatza-musikaren aniztasuna ezagutarazteko" aukera. Ohi bezala, egile nafarren obrak izanen dira orfeoia egitaraua. Oraingoan Lorenzo Ondarrarena eta Koldo Pastorrrena. Orfeoia Diana Yerro pianojolearekin batera ariko da.



Lakuntzan Etxarriko abesbatza

Obra	Egilea
Nafarroako ereserkia	Mold. V. Diaz.
De Profundis	John August Pamintuan
Bogoroditse dievo	Sergey Rachmaninov
Ave Maris stella	Trond Kverno
Te llevaré	Albert Alcaraz
Frozen (choral suite)	Christophe Beck. Mold.: Roger Emerson
Heim Árnadalr	
Vuelie	
Bare Necessities	Terry Gilkyson. Mold: Leonardo Waisman
Akerra ikusi degu	Jesus Guridi
Haritz adarrean-Katalin	Julen Ezkurra
Segalariak	Josu Elberdin
Kitolis	Luis de Aranburu

Olaztin, Erkudengo Ama abesbatza

Obra	Egilea
Nafarroako ereserkia	Mold.: V. Diaz
Ojos claros serenos	V. Ruiz
El mar	J.L. Ansorena
Oh nuit	J.P. Rameau
El breve espacio en que no estas	P. Milanés. Mold.: E. Silva
Juramento	E. Silva
Swing low	W. Willis
Baldorba	Lertxundi. Mold: LOndarra
Herribehera	Lertxundi. Mold: LOndarra
Matalaz	Lertxundi. Mold: LOndarra
Ilunabarra	Mocoroa
Ama Birjina	L. Ondarra
Oh happy day	M&T Edwin R. Hawkins.
Mendirik mendi	Salaberri

Altsasun, Iruñeko Orfeoia

Obra	Egilea
Nafarroako ereserkia	Mold: Valentín Ruiz López
Wohl mir, dass ich Jesum habe	J.S. Bach
Cantique de Jean Racine	G. Fauré
Bogoroditse (De las "Visperas")	S. Rachmaninov
Little innocent Lamb (Espiritual)	Marshall Bartholomew
Izar ederrak	Zornotza. Josu Elberdin
Axuri Beltza	Jaurreita. Mold: Ondarra
Negra sombra	J Montes. Mol: P. Hope.
	Hitzak: Rosalia de Castro
Eperrak	Herrikoia. Mold: K. Pastor
Va pensiero (Nabucco operakoa)	Guisepe Verdi
When I'm sixty four	J. Lennon-P. McCartney
El Roncalés	S. Ruiz de Luna.

“Ohiko hedabideen joeratik ateratzea da gure asmoa”

Kirola arnasa luzez, eta genero arteko oreka bilatuz. Hori Harmaila aldizkari sortu berriaren proposamena. Abuztuan plazaratu zuen zero alea, eta aurrenekoa Durangoko Azokan aurkeztuko du. Iñaki Berastegi urdiaindarra da sortzaileetako bat

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza URDIAIN

1 Nortzuk zaudete Harmailaren atzean?

Hiru gara Harmailaren sortzaileak: neroni, Aitor Manterola eta Eñaut Barandiaran. Aitor kazetaria da bokazioz, eta Berrian aritzen da. Barandiaran, aldiz, gidoigilea da, eta kudeatzaile lanetan dabil Indartsu futbol taldean.

2 Nola hezuramitu zenuten proiektua?

Aitor eta Eñaut hasi ziren ideia hori garatzen. Beste alde batetik ni nengoen, karrera bukatu berri. Betidanik kirola gustatu izan zait, eta pentsatzen nuen bazegoela lekua horrelako zerbait egiteko. Euren berri izan nuen sare sozialetan eta beraiekin hitz egin ostean, egitasmoa abiatzea erabaki genuen.

3 Hutsune bat ikusi zenuten...

Euskal Herriko egunkarietan hitz egiten da kirolaz, baina ez du aparteko tokirik. Erdarazkoetan bestelakoa da egoera, baina euskarazko hedabideetan lekurik ez dute oraindik guk proposatutako testuek eta, orohar, kirol kazetaritzak.



Iñaki Berastegi, *Harmaila* aldizkariaren sortzailea. EÑAUT

4 Zuen proposamena, arnasa luzeko kirol kazetaritza da.

Ohiko hedabideen joeratik ateratzea da gure asmoa. Horietan, gaurkotasanari lotutako edukiak dira nagusi. Badakigu gure egunkarietan kirola ez dela lehenta-

suna. Ez da nahi beste leku izaten. Ikusi genuen zerbait berria egiteko aukera zegoela, arnasa luzez, gaurkotasanetik urrunduz, eta normalean ukitzen ez diren gaiak jorratuz. Irakurle mota batentzat erakargarria.

5 Hortaz, ezohiko gaiak landuko dituzue. Adibidez?

Zero zenbakian arrauna izan genuen hizpide. Gai nagusian, elkarrizketa izan genuen Jon Maiarekin. Gero, Lapurdiko arraun taldeko entrenatzailearekin ere solastu ginen. Lehen zenbakiaren kasuan, kirol erakundeetan presidente diren emakumeak hartu ditugu gai nagusizat. Horrez gain, Haimar Zubeldia ziklista ohia, Arritxu Iribar kirol kazetaria edota Alain Santamaria Euskal Herriko mendi duatloiko txapelduna ere elkarrizketatu ditugu. Gero, erreportaje batzuk ere badaude. Esaterako, emakumeen pilotari buruzko bat.

6 Bistan denez, tarte garrantzitsua eskainiko diezue emakumeei.

Gure oinarrietako bat da genero berdintasuna. Iruditzen zaigu logikoa dela kirolean ere tokia egitea emakumeei.

7 Eduki horiek guztiak sortzeko, kolaboratzaile sare bat ari zarete ehuntzen, ezta?

Hori, hein batean, zero zenbakiarekin lortu genuen. Lehen aleak 100 orri ditu, eta lan dezente da hiru pertsonarentzat. Zero zenbaki hartan kontaktu batzuk egin genituen, eta erabaki genuen orduan laguntzaile izan genituenekin berriz ere harremanetan jartzea. Jon Ander De la Hoz, Unai Zubeldia eta Ane Urkiri dira kolaboratzaileetako batzuk. Badugu zerrenda bat, gai konkretu bat lantzeko profil egokia duten eta gure ezagunak diren kazetariekin.

8 Lan nekeza izan al da proiektua abiatzea?

Lehen zenbakiak lan asko eskatu digu. Gauza asko dira: inprenta lortu, diseinua zehaztu, tramite burokratikoak egin, promozio kanpaina abiatu... Dezen te sufritu dugu zenbaki hau inprentara garaiz bidaltzeko. Baina, tira, jada prest dago.

9 Nola finantzatu duzue?

Harpidetza sistemaren bidez lortu dugu aurrekontuaren zati handiena. Ordaindutako publizitateerik ez dugu. Badago publizitatea, baina beste eredu batzuk erabilia. Kasu batean, publizitatea trukatzearen eredu erabili dugu. Eta beste enpresa batzuek euren produktuak eman dizkigute, zozketak egiteko. Horretaz aparte, harremanetan jarri gara Euskal Herriko komunikabideekin. Elkarrizketak ari gara izaten Tokikomekin, eta Berria eta Gararekin ere izan ditugu kontaktuak.

10 Zenbatekoa da aldizkari bakoitzaren salneurria?

Hamar eurokoa. Garestia dela pentsa daiteke, baina 100 orri ditu, eta ez da aldizkari arrunt bat: paper aldetik ezberdina da, kalitate handiko argazkiak ditu, diseinu aldetik berritzailea da... Gero, harpidetza dago. 40 euro ordainduta, urtean paperezko bost zenbaki jasotzeko aukera dago. Harpidetza digitala ere egin daiteke, 15 euroren truke.

11 Nolako harrera ari zarete izaten?

Beti nahi baino gutxiago, baina pozik gaude. Erantzun ona ari gara jasotzen, sare sozialetan eta aldizkariaren dendan bertan. Durangoko Azokan bultzada handi bat jasotzea espero dugu.

Bazkide zozketa

ABENDUKO SARIAK:

1. SARIA:
EKAINBERRI: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN



CAMPING
ARTAZA



gaztezulo

Ekain berri





lacturale